



David Fernandez (CUP)

«Guretzat erreferenduma ez da negoziagarria, horrek egiten du zilegi Kataluniako estatu berria»

Miren Epalza

«Maila batera iritsitako emakumeek feminismo hitza errefusatzeak min ematen dit»

Txakolina

Baldintza txarrak gainditu dituen ardoa

Hollywood

New Yorkeko Film Akademiak agerian utzi du genero berdintasun eza

Bretainia

Ekotasak jendearen haserrea piztu du

Belen Uranga

«Pentsaezina da garapen iraunkorra tokian tokiko hizkuntza kontuan hartu gabe»

TTIP hitzarmena

AEBekiko merkataritza suspertzeko, europarron eskubideak murriztu

FEMINISMOTIK BERDINTASUNA ERAIKITZEN

MARTXOAK

www.donostiaberdintasuna.org

8
2014

MANIFESTAZIOA

(Mugimendu Feministak deitua)

ILUNTZEKO 19:00ETAN
BOULEVARDEAN

HIRIKO
ESPAZIOAK
GUREGANATUZ

III UDAL
BERDINTASUN
PLANA

AURREKONTUAK
GENERO
PERSPEKTIBATIK

EMAKUMEEN
ETXEA
(Okendo, 9)



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Berdintasuna
Igualdad



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza tekniko: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580 Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko martxoaren 9a, 2.406. zenbakia

ASTEKO GAIA

EB-AEB MERKATARITZA HITZARMENA Larrutik ordain dezakegu merkataritza hauspotzea. UNAI BREA / 4

PERTSONAIA

MIREN EPALZA RONKAL: «Bizitza mespretxatzen duen sistema batean bizi gara». REYES ILINTXETA / 9

GAIK

DONOSTIA BERRERAIKITZEN 1813ko abuztuaren 31ko biharamon luzea. NAGORE IRAZUSTABARRENA / 14

AUZOLAN ESPERIENTZIAK Burujabetzaren aldeko kooperatiba. MARTIN VICIOSO / 17

TXAKOLINA Ezaugarri bereziak ditu Euskal Herriko mahastigintzak. IRATI SARASUA ARABAOLAZA / 18

IRITZIAREN LEIHOA

GLOBAL FORUMA ETA TOKIKO AGIRIA MIKEL ZURBANO / 22

HAZKUNTZAREN IPUINA IÑAKI ODRIÓZOLA / 24

ETA ZER DIOT NERONEK? TXEMA MONTERO / 25

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 23

TXANDAN Miliar miriada. ITXARO BORDA / 24

BERTSO BERRIAK Martxoak 8. ANE LABAKA MAYOZ / 25

ERDIKO KAIERA

ZINEMA Emakumeak Hollywooden, fikzio hutsaren hurrengoa. NAGORE IRAZUSTABARRENA / 26

150 GR. JAIALDIA GASTEIZEN Ia kasualitatez, antzerkiak espazioa hartuko dio egunerokotasunari. MYRIAM GARZIA / 29

LITERATURA SAIOA RUIZ GONZALEZ, G. UBEDA GOIKOETXEA / 30

MUSIKA MONTSERRAT AUZMENDI / 31

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 33

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 34

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA / 35

TERMOMETROA

DAVID FERNANDEZ: «Autonomia desegin eta gestora bat izenda dezakete». XABIER LETONA / 36

USCHI GRANDEL: «Alemanian jada ez digute terrorismoaz galdetzen, egoera politikoaz baizik». MARTIN MENDIZABAL GARAI / 40

EKOTASAREN KONTRAKO PROTESTAK Britainiaren kolera gorria. ERWAN KERNE / 42

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 45

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 45

BELEN URANGA: «Hizkuntza galera eta pobrezia jatorri bereko ondorioak dira». AMAIA UGALDE BEGOÑA / 46

NET HURBIL Fukushima + 3 urte: kontrolik gabe dirau baina gutxi axola dio. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Larrutik ordain dezakegu komertzioa hauspotzea

Uztailetik dabilta AEBetako eta Europar Batasuneko ordezkaritza bana TTIP sigladun merkataritza hitzarmena negoziatzen. Munduko ekonomian nagusigoa galtzeko beldurrak bultzatu ditu, azkenik, Washington zein Bruselako bulegoetan aspaldiko asmoa zena gauzatzera. Herritar xumeak ez dezala mirari handirik espero: liberalizazio gehiago eta eskubide gutxiago izango ditu, merkataritza suspertzearen aitzakian.

| UNAI BREA |

HEGEMONIA GALTZEKO BELDURREZ dira Mendebaldeko agintariak. Haien kezka ondo baino hobeto laburbiltzen du Javier Solana NATO-ko idazkari nagusi ohiak oraintxe urtebete idatzitakoak: “Gaur egun, Europako hiru herrialde daude munduko zazpi ekonomia nagusien artean. Hamar urte barru bi baino ez dira izango. 2030ean Alemaniak besterik ez du iraungo zerrendan, eta 2050ean batek ere ez. Ordurako AEB izango da Mendebaldearen ordezkari bakarra zazpi [ekonomia] gorenetan”.

Estatu aberatsenak biltzen dituen Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolaketa

kundeak, ELGak, kalkulatu du datozen urte bietan munduko ekonomia hazkundearen zatirik handiena Europatik kanpo emango dela, batik bat Txinan. Asia podiumeko lehen lekurantz doa ziztu bizian, baina AEBek eta EBk ez dute erraz amore emango, eta kontraeraso geopolitikoak prestatzen hasi dira. Andre Sapir, Bruegel *think tank* neoliberalen kideak, sinpleki adierazi du: “Txinari adierazi behar diogu oraindik oso garrantzitsuak garela”. Eta ez dabil guztiz oker. Munduko BPGren ia erdia, eta salerosketen heren bat inguru, ipar Atlantikoaren ertz bietan dago.



AEB eta EBren helburua, orain, galtzeko zorian duten nagusitasunari eustea da, merkataritza akordio handi baten bidez. Arestian aipatutako Javier Solanaren artikulua Barack Obamak akordio horren negoziazioak abiatzeaz zirela iragarri eta bi astera argitaratu zen, 2013ko otsailean. Apustua argia da: Atlantikoaz gaindiko salerosketa eta inbertsio hitzarmen bat adostea, batez ere ingelesezko TTIP siglez ezagun dena, nahiz eta TAFTA ere irakurriko zenuten. Iazko udan egin zuten alde biek lehen negoziazio erronda, eta geroztik makina ez da gelditu —ezta udazkenean AEBek Europa espiatu zutela jakin zenean ere—. Gutxi gorabehera zuek aldizkari hau jasotzerako iragarri dute laugarren elkarriketa saioa.

Erraz igarriko zenuten Javier Solanaren xedea TTIPri gorazarre egitea zela. Espainiar ministro ohiak izenburu argigarria jarri zion bere artikuluari: *Europar-amerikar ametsa*. Europako Batzordeak bere webgunean zabalduko informazioak zehazten du pagotxa zertan den: batzuen eta besteen arteko komertzioa nahi bezain arina ez izatea eragiten duten oztopoak ezabatuz, funtsean horretan baitatza TTIP, milioika lanpostu berri sortuko dira —Europar 400.000 inguru, hainbat iturriren arabera—, eta urtero 119.000 milioi euroko irabaziak lortuko ditu EBk; batez beste 545 euro gehiago lau kideko etxe bakoitzeko. Sona handiko zenbait banku eta finantza-konpainiak sortutako CEPR *think tank* britainiarrari zor dizkiogu kalkuluok.

Ustezko irabaziak ezbaian

Agenda neoliberalari oldartzen eskarmentu luzea dutenak ez daude egonean, eta fite antolatutako dute erantzuna. Seattle to Brussels-ek (S2B), globalizazioaren aurka dabilen elkarrekin sare europarrak, txostena argitaratu zuen iazko urrian, TTIPk ekar ditzakeen mehatxuez ohartarazi nahian. Solanaren ametsa bestean distopia izan daitekeela iradoki zuten izenburuan: *A brave new transatlantic partnership* (Atlantikoan zeharko partzuergo berri ederra), Aldous Huxleyren *Bai mundu berria* eleberraren jatorrizko tituluan oinarrituta.

CEPRren ikerketatik ondorioztatutako zifrak ezbaian jarritz hasten da txostena. S2Bk dioenez, tentu handiz hartu behar dira aurrei-

kuspenok. Manchesterreko Unibertsitateko Clive George ekonomialariak —orain gutxi arte TTIPren balizko inpaktuak neurtzen Europako Batzordean jardun duena— esan du “estimazio horiek oso eredu espekulatiboetan oinarrituta daudela”. Zehazki, Europako ekonomiaren hazkundera %0,5ekoa izango dela ontzat eman da. “Europako Batzordeak berak oso baikortzat jo du aurreikuspen hori”, dio S2Bk. Benetan espero litekeen hazkundera, aldiz, arbuigarria da Clive George-ren ustez, “eta EBk badaki hori”.

Enpleguan inpaktu latza hasieran

“Metodologia baikorregia gorabehera, Europako Batzordeko TTIPren Inpaktu Azterketak onartu egiten du AEBekin salerosketa areagotzearen ondorioz ‘hasiera batean *shock*

bat espero daitekeela berregituraketa handiena jasango duten sektoreetan”, irakur dezakegu S2Bren txostenean. Esaterako, haragi, ongari eta azukre ekoizleek larritik ordainduko dute arlo horietan diharduten AEBetako enpresek lehiatzeko duten presuntasun handiagoa, eta ez dira bakarrik izango. S2Bk salatzen du EBk desorekak aurreikusi bai, baina haien aurkako neurriak ez duela hartu: “Batzordeak

ebatzi du gobernu bakoitzak baduela nahikoa baliabide hitzarmenak eragindako kalteak arintzeko”. Ondorioa, globalizazioaren aurkako GKEen esanetan, Europako eskualde aberatsen eta txiroen arteko arraila are zabalgatzea izan daiteke.

TTIPk enpleguan izango duen eragin zehatza aurrez jakiterik ez badago ere, Clive Georgek jadanik abian diren antzeko hitzarmenen ispiluan so egiteko gomendatzen du. Zentzu horretan, S2Bk NAFTAren adibidea nabarmentzen du bere azterketan, alegia, 1993tik indarrean dagoen Kanada, AEB eta Mexikoren arteko merkataritza akordioa. Bill Clintonek milioika enplegu berri iragarri zituen, baina hitzarmenaren ondorioz sortutakoaren eta galdutakoaren azken balantzea negatiboa suertatu zen AEBetan: ia 900.000 lanpostu gutxiago.

Araudiak ahultzeko arriskua

Edozein kasutan, hitzarmenaren aurka dau den elkartearen kritika nagusia ez da ondorioak



TTIPren aurka azaldu diren jendarte zibileko elkarteek salatzen dute, batetik, EB eta AEBen arteko negoziazioak ezkutuan egiten ari direla, eta bestetik, ondutako hitzarmenak multinazional handien interesak babestu eta herritarrenei eraso egingo diela.

Gardentasuna aldarrikatu, dokumentuak zentsuratu

TTIPREN NEGOZIAZIOEI jarraipen zorrotza egiten ari zaizen elkarteetako bat CEO da, Bruselako lobbyen jarduna aztertzen duen GKEa. Alabaina, jarraipen hori ez da nahi bezain gertukoa suertatzen ari, Europako Batzordea funtsezko informazioa ezkututzen ari baitzaie, CEOren esanetan.

Karel de Gucht Europako Merkataritza komisarioak dio EBn ez dagoela sekreturik TTIPren negoziazioei dagokienez. Batzordeak berak, bere webgunean duen hitzarmenari buruzko FAQ (galdera ohikoenak) zerrendan, azken puntua eskaintzen dio gaiari. Hone-l hasten da: “Merkataritza negoziazioak arrakastatsuak izateko, konfidentzialtasun maila bat behar duzu, beste jokalariai zure kartak erakutsi nahi ez badizkiozu”. Hala ere, AEBekiko elkarrizketek aurre-ra egin ahala EBk industriari, merkataritza elkar-teei, kontsumitzaileei eta jendarte zibileko beste ordezkari-iei informazioa helarazten jarraituko duela dio dokumentuaren hurrengo paragrafoak. Aldiz, TTIPrekiko jarrera kritikoa dutenek salatu dute oso informazio gutxi ari zaiela iristen.

CEOk argitaratu duenez, Europako Batzordeak 130 biler a inguru egin ditu TTIPren negoziazioetarako



Karel de Gucht, Europako Batzordeko Merkataritza komisarioa.

estrategia prestatze aldera. Gehien-gehienak, 119 hain zuzen, industriako lobbyekin. CEOk, informazio askatasunari buruzko legedietan oinarrituta, bilera horietan esandakoaren berri eskatu zuen, baina ordainetan jasotakoa ia irrigarria izan dela salatu dute berriki. EBk 44 dokumentu baizik ez dizkie igorri, eta horietatik 39tan “oso nabarmena da zentsura”. Zenbait kasutan, dio CEOk, dokumentuko hitz guztiak ezabatu dituzte.

MUNDUKO EKONOMIA FOROA-CC BY SA

kalkulatzean arinkeri az, edo are maltzurkeriaz, jokatu izana. Kezkak beste nonbait du jatorria. Tom Kucharz militante ekologistaren hitzak erabiltzearen, “orain arte –nahiz ez beti modurik onenean– pertsonen eskubideak babestu dituzten gizarte, lan eta ingurumen arloetako zenbait [europar] araudi ezabatzeko baliatuko dute TTIP. Etekin bakar-ra enpresa multinazional handiek lortuko dute”.

S2Bren txostenak, hain zuzen, Europako herritarren interesen aldeko arau eta legeei TTIPk zer nolako kaltea ekar diezaikeen aztertzen du gehienbat. Izan ere, akordioa aurrera atera nahi dutenek argi dute alde bien arteko harreman komertziala “olioztatzeko” ez dela nahikoa zenbait aduana-zerga ezabatzea. Europako Batzordea, merkataritza moteltzen duten hesiak aipatzen dituenen, “beharrezkoak ez diren erregulazioez eta inbertsioei ezarritako mugez” ari da batez ere.

Atlantikoko alde batean eta bestean enpresek bete beharreko araudiek desberdintasun esanguratsuak dituzte. Europakoa zorrotzago da, eta erregulazioa bateratzearen ondorioa hura ahultzea izan daiteke. Konparazio baterako, TTIPk mehatxu egin diezaiokie Europako estatu askok duten frackingari

buruzko jarrera kontserbadoreari, hala nola ia EB osoan labore transgenikoei emandako ezezkoari.

Zuhurtzia printzipioa kolokan?

Ingurumenaren zein kontsumitzaileen osasunaren babesari dagokionez, eta AEBetan ez bezala, EBren politiken oinarrietako bat zuhurtzia printzipioa da, beti behar bezala aplikatu ez arren, berriki Pioneer konpainia-

ren 1507 arto transgenikoari atea zabaldu izanak edota frackingaz erregulazio loteslea ezartzeari uko egin izanak erakusten dutenez. Alta, ukaezina da Atlantikoaren alde honetan ingurumenaren eta osasunaren babeserako estandarrak zorrotzagoak direla; ozeanoaren bestaldeko industriaren lobbyek adierazi dute, TTIPren

negotzazioen harira, ez dutela begi onez ikusten zuhurtzia printzipioa. Europar korporazio handien pentsamoldea ez da oso desberdina.

Testuinguru honetan ulertzekoa da globalizazioaren aurkakoen kezka, eta bereziki ekologistena. Haatik, Europako Batzordeak behin eta berriro ukatu du, bai internet bidez herritarren eskura jarritako dokumentazioan, bai bere ordezkarien adierazpenetan, TTIPk murrizketarik ekarriko duenik ingurumena-

“Orain arte pertsonen eskubideak babestu dituzten gizarte, lan eta ingurumen arloetako zenbait araudi ezabatzeko baliatuko dute TTIP”

Tom Kucharz



ren eta kontsumitzaileen babes araudietan. “Europar dugun babes maila altua ez da negoziagarria”, lasaitu nahi gaitu EBren dokumentu batek.

Zer espero dezakegu benetan?

Azkenean, ez dago garbi Europak non jarriko duen zapaldu ezinezko marra gorria. Besteak beste, publikoak ezer gutxi dakielako TTIPren edukiaz (ikus aurreko orrialdeko koadroa). Horregatik akaso, S2Bren *A brave new transatlantic partnership* txostena baldintzazko aditzez beteta dago. Zenbateko funtsa du, orduan, TTIPren aurkarien beldurrak?

Galdera hori egin diogu Luis Rico Ekologistak Martxaneko kideari. “Arazoa, hain zuzen, negoziazioak ilunpean egiten ari direla da. Argi dago demagogia litzatekeela gaur egungo erregulazioak kenduko dituztela ziurtzat jotzea. Hala eta guzti, uste dugu TTIPren arriskuez ohartarazi beharrean gaudela, ondo dakigulako nolakoak diren gauzak Bruselan, eta bereziki nolako boterea duten lobbyek. Ez dugu negoziazioen zirriborrorik ikusi, baina iritsi zaizkigun agiritako asko industriak idatzitakoak dira; besteak beste, azpimarratu egiten dute zenbat diru aurreztuko litzatekeen zuhurtzia printzipioa bazterrean utzirik. Industriaren boterea handia da, eta ezkorrek izatera garamatza. Ez litzateke EBk haien aurrean amore ematen duen lehenbiziko aldia”.

TTIPren negoziazio taldeetako buruak elkarri bostekoa emanaz ageri dira argazkian. Ezkerrean, AEBetako ordezkaria, Dan Mullaney; eskuinean europarra, Ignacio García Bercero espainiarra. García Bercerok berriki adierazi duenez, EBk ez du inolaz ere gutxituko elikagaien segurtasunean duen babes-maila. AEBetako labore transgenikoez eta abereentzako hormona bidezko tratamenduez ari zen, zehazki.

Hamaika arlotan eragingo du

Ez dezala pentsa irakurleak TTIPren eragina ingurumen eta osasunean baino igarriko ez denik. Hitzarmena zabala da eta esparru askori eragingo die; ezinezkoa da erreportaje bakarrean denei buruz xehe jardutea. Adibide batzuk besterik ez: europar laborarientzat garesti samar suerta daiteke AEBetako etxalde erraldoekin lehiatu beharra. Kontuan hartu behar da etxalde estatubatuarrek, batez beste, Europakoak baino hamahiru aldiz handiagoak direla. Sektorean are eta politika neoliberala-goak ezartzeak EBko nekazariei egingo lieke kalte.

Polemika piztu duen beste arlo bat interneteko erabiltzaileen pribatutasuna da –AEBetan askoz ahulagoak dira datuen babeserako legeak–, EBk horretan ere kezka oro uxatu nahi izan duen arren. Bestetik, Europako langileek oraindik galdu ez dituzten eskubideak bereziki zaindu behar dira, AEBetako estandarretara hurbiltzeak are atzerapauso gehiago ekarriko bailuke. Kontuan izan behar da Washingtonen Lanaren Nazioarteko Erakundearen hainbat arau onartzeari uko egiten diola. Eta abar. Oro har, Troikak azken urteotan inposatutako politika neoliberaletan urrats bat harago egitea ekarriko digu TTIPek, honezkero ondo ezagutzen ditugun ondorioekin.

TTIP HITZARMENA

Estatu-inbertsore ebazpen epaitegiak

“TTIPek ez du hitzez hitz esango ‘hemendik aurrera transgeniko guztiak baimenduta daude EBn’, baina testuak idazteko erak ate asko zabaldu ditzake”, diosku Luis Ricok. Europako Batzordeak, bere burua defendatu nahian, behin eta berriro esan du hitzarmena ontzeko prozesua erabat demokratikoa izango dela, EBko estatu guztietako parlamentuek, hala nola Bruselakoak, onartzen ez duten ezer ez baita txertatuko europar legedietan. Alta, Ricok dio EBk erakutsi duela lehenago ere badakiela atzeko atean zirrikituak bilatzen.

Zentzu horretan, kezka gehien eragin duen TTIPren alderdia estatu eta inbertsoreen arteko nazioarteko ebazpen-epaitegiaren figura da. Horren bitartez, konpainia batek uste badu tokian tokiko legediak bere interesak kaltetzen dituela, kalte-ordainak eska ditzake, ohiko justizia administrazioen bideak saihestuta. Epaitegiak arrazoia ematekotan, administrazio publikoak ordaindu beharko lioke konpainia horri (ikus ARGIAren 2.395. zenbakiaren Net Hurbil atala).

Europako Batzordeak, bere webgunean oraindik ikusgai daukan dokumentazioan, mekanismo horren defentsa egiten du. Baina

Europako enpresek araudi zorrotzagoa bete behar dute AEBetakoek baino. Erregulazioa bateratzearen ondorioa hura ahultzea izan daiteke

oztopo handia agertu zaio: ebazpen-epaitegiaren figurari kritika ez zaio iritsi altermundialismotik bakarrik. Besteak beste, Holandako Parlamentuak era horretako epaitegien aurkako ebazpena onartu du, eta antzera mintzatu dira Londresko Parlamentuko alderdi guztietako ordezkariak.

Hala, urtarrila amaieran EBk esan zuen gaiari buruz duen jarrera berrikusi eta, martxotik aurrera, hiru hilabetez, kontsulta publikoa egingo duela. CEO elkarteak TTIPren kontrakoan garaipen txikitat jo du jarrera aldaketa hori, baina aldi berean amarrua besterik ez dela adierazi du. Hasteko, EB ebazpen-epaitegien erreformaz mintzatu delako, ez haiek hitzarmenetik kanpo uzteaz. Eta bigarrenik, berriki onartu den EBren eta Kanadaren arteko merkataritza akordioak (CETA) ebazpen-

epaitegiara jotzeko eskubidea aitortzen die-lako enpresei. AEBetako konpainia batek aski luke Kanadan ordezkartza izatea bide hori urratu ahal izateko.

Askotxo dirudi, akordioaren bultzatzaileek hitzeman diguten eta seguruak ere ez diren 545 euro-en trukean. ■



**“AUZO ETA HERRIAK
DONOSTIA INDARTZEN”**
Aurrekontu parte-hartzaileak

**Bilera irekiak Alkate eta
Gobernu Taldeko kideekin
herri proposamenei buruz
kontu emateko.**

Bilerak non?

- **Martxoak 10, Amara Berri.** Ernest Lluch K. E.
- **Martxoak 11, Bidebieta.** Kontadores
- **Martxoak 12, Aiete - Miramon.** Aiete K.E.
- **Martxoak 13, Loiolako Erriberak.** Ernest Lluch K. E.

Aurkezpen guztiak 19:00etan izango dira.



www.auzoetaherriak.donostia.org

[@DSS_Partaidetza](https://twitter.com/DSS_Partaidetza)



PERTSONAIA

MIREN EPALZA RONKAL

«Bizitza mespretxatzen duen sistema batean bizi gara»

Ekonomia feministaren arabera, etekinak irabaztea lehenesten du kapitalismoak, bizitzaren gainetik. Batzuetan sudur aurrean duguna izaten da ikusten zailena.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco



“Merkatuan funtzionatzen duten logikak ez dira bateragarriak bizitzaren zaintzarekin” .

Zuk hautatu zenuen unibertsitateko karrera bikoitzak (Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza eta Zuzenbidea) gizartearen goiko mailan sartzeko balio du?

Hori da esaten dutena. Unibertsitatean ikasketak hauek ikasleei aurkezterakoan saltzen

dietena da etorkizunean elitea izanen direla, enpresariak, bankuetako zuzendariak... Ni sartu nintzen atak ez ixtearren. Ez nuen oso garbi zer nahi nuen eta zuzenbidea eta ekonomia interesatzen zitzaizkidanez hautatu nuen.

MIREN EPALZA RONKAL

Dena den, elite horretara iristeko erraztasun handiagoak dituzte gizonak, ezta?

Gizon eta emakumeak berdinak garena eta eskubide eta aukera berak ditugu, diskurtso hori oso sartua dugu eta unibertsitatean, ikasten ari zaren bitartean, amets moduko horretan bizi zara, baina gero errealtateak aurrez aurre jotzen zaitu. Guk karrera osoan ez genuen inoiz ezer irakurri emakumei buruz, ekonomian duen parte-hartzeari buruz, adibidez. Errealitatearen alde garrantzitsu hori ezkututzen ari dira.

Lizentziatu ondoren benetan interesatzen zai-zuna hasi zinen ikasten.

Bai. Duela zenbait urte IPESen eskola feministan parte hartu nuen eta oso ona iruditu zitzaidan. Argi neukan ikasketa feministak egin nahi nituela, feminista hitzari uko egin gabe. Batzuetan genero hitzarengatik ordezkatzeko dute politikoki zuzenagoa iruditzen zaielako, baina nik ez nuen hori nahi. Perun nengoela saiatu nintzen matrikula Bilbon egiten masterra on-line egiteko, baina hartu ez nindutenez, Castelloko Jaime I unibertsitatean egin nuen eskaera. Urtebeteko masterra izan da, oso zorrotza eta interesgarria.

Zer ikasi duzue?

Master transbertsala da eta gai asko ikusten duzu ikuspuntu feministatik. Helburua da emakumei kendu zaien protagonismoa aldarrikatzea eta alor bakoitzean beren ekarpenak azalratzea.

Zer da feminista izatea?

Feminismoak bilatzen duena da gizon eta emakume, pertsona guztien eskubideen berdintasuna, desberdintasunak errespetatuz. Gaur egun oraindik oso gaizki ulertzen da. Maila batera iritsi diren emakumeek feminismo hitza nola errefusatzeko duten entzuteak min handia ematen dit. Gainera, kontraesankorrak diren gauzak bateratzen dituzte: “Ez naiz feminista, baina gizon eta emakumeen eskubideen berdintasunean sinesten dut”. Oraindik pentsatzen da feminista badela emakume ero bat, gizonak gorroto dituenak, itsusia, askotan lesbiana, erradikalak... Erradikalak noski bagarela, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunaren sustraira jotzen dugulako. Horregatik gara erradikalak. Beste guztia mito da. Borroka honi balioa kentzeko jokaera.

Biologia zer punturaino da garrantzitsua?

Desberdintasun biologikoak badira ere, argi dago jokamolde gehienak sozializazioaren bidez ikasiak direla. Jaiotzen garenetik desberdina da haurrak tratatzeko modua: neskei

zein politak eta txintxoak diren esaten zaie eta mutikoei, aldiz, zer mugituak eta bizkorrak. Horrela txiki-txikitatuz ikasten dugu gizarteak gutaz zer espero duen. Imitazioz ikasten dugu. Gizonezkoei erakusten zaie edozein motako gatazka konpontzeko bidea bortizkeria dela, baina ez bere sentimenduak kudeatzen edo bere agresibitatea beste modu batez bideratzen. Aitzitik, autodefentsa feministaren esparrutik esaten dena da emakumeoi ukatu egin zaigula biolentzia erabiltzeko gaitasuna. Horregatik emakumeek agresibitate puntu hori ez daukagu askotan. Adibidez, taberna batean sentitzen baduzu norbaitek ipurdia ukitzen dizula sarri ez dakizu zer egin. Blokeaturik gelditzen zara.

Inguruko guztia da matxista?

Bai, eta gainera orain arriskitsuagoa da oso barneratuta dugulako berdintasunaren mito hori. Konstituzioak dio denak berdinak garela eta sinetsi egiten dugu. Horrek itsutu egiten gaitu, baina gero bizitzak erakusten dizu emakume izatea ez dela horren erraza. Eta hori hemen, Europan. Pentsa beste toki askotan zer gertatzen den.

Krisiak emakumeengan zer eragin duen iker-tzera sartu zara bete-betean. Zer dakarkie krisiak emakumei?

Lan gehiago. Azken hamarkadetan lorpen sozial handiak izan dira eta estatuak, nolabait, bere gain hartu izan ditu tradizionalki emakumeek egiten zituzten lanetako batzuk. Orain, ordea, politika neoliberalentzat gastu publikoa murrizteko beharra obsesio bihurtu da eta horren ondorioz zaintza lan horiek berriz familietara bideratzen ari dira. Zaintza lanen ber-pribatizazioa gertatzen ari da eta, azkenean, emakumeak izan ohi dira lan horiek hartzen dituztenak. Zaintzaren krisia da.

Emakumea sistemaren euskarria edo koltxoa da. Edozein aldaketak edo krisik familiengan izaten du eragin zuzena, eta emakumeak dira beti, bere biziraupen estrategien bidez, sistemaren aldaketa horietara egokitu

NORTASUN AGIRIA

Miren Epalza Ronkal. Iruñean sortua 1988ko maiatzaren 13an. Nafarroako Unibertsitate Publikoan Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza eta Zuzenbidea karrera bikoitza egin ondoren, ikasketa feministetan murgildu da, ekonomia feministan espezializatuz. Aita bezala, liburu jale amorratua da Aingeru Epaltza idazlearen alaba. Elkarrizketa Iruñean egin genuen Perurako hegazkina hartu baino ordu batzuk lehenago. Orain han da, Chiclayo hiriko Señor de Sipán unibertsitatean klaseak ematen.



behar direnak. Orain berdin gertatzen ari da. Galdera da noraino eusten ahal zaion egoera horri. Krisi hau ez da soilik ekonomikoa, estrukturala baizik, kontraesanean bizi gare-lako: bizitza mespretxatzen duen sistema batean bizi gara eta, aldi berean, saiatu behar dugu bizitza zaintzen.

Zergatik diozu sistemak bizitza mespretxatzen duela?

Kapitalismoak etekinak irabaztea lehenesten du, bizitzaren gainetik. Adibidez, ekonomiak, zientzia gisa, beti hartzen du kontuan bakarrik merkatuan gertatzen dena, bizitza zaintzearekin lotuta dauden prozesu guztiak ekonomiatik kanpokotzat joaz. Ez dira ez ardatz ez helburu. Krisia nabarmen ari da azaleratzen bizitza eta kapitalaren arteko gatazka.

Irtenbidea berriz hastea litzateke, beraz?

Bai, nolako gizartea nahi dugun birplanteatzea. Ekonomia feministak bizitzaren jasangarritasuna jartzen du erdigunean eta proposatzen du nola antolatu edo eraiki beste guztia honen inguruan. Merkatua ekonomia- ren beste esfera bat gehiago izanen litzateke, baina ez erdigunea.

Nolako gizartea litzateke hori? Amestu dezagun pixka bat.

Pertsonengan oinarritutako ekonomia bat. Hasteko lanari buruzko eztabaida sortu beharko zen gizartean. Lanaren kontzeptua zabaldu, eta onartu ez dela soilik ordaindutakoa dena, baizik eta bizitzeko eta pertsonak ongi bizi daitezzen egiten dena ere bai. Ikusi beharko zen bizitza duina izateko zer lan behar diren eta zeintzuk ez, eta gizartearen kideen artean banatu. Enpresak inplikatu beharko ziren, adibidez zerga erreproduktibo bat ordainduz, azken finean haiek pertsonak behar baitituzte lan egiteko. Edo erreforma fiskal progresibo bat erreproduktio gastuak bermatuko zituen. Bizitza bera arriskuan jartzen ari gara. Horrela ezin dugu jarraitu.

Lana eta familia bateratzeko saiakerak egiten dira gaur egun...

Gaur egungo kontziliazioa tranpa moduko bat da, azken finean emakumeak direlako kontziliatzen dutenak. Oso gizon gutxik hartzen du lan murrizketa haurrak zaintzeko, esate baterako, eta sistemak irauten badu lan horiek egiten direlako da, beraz birbanatu egin beharko genituzke.

Borondaterik bada horretarako?

Batere ez.

‘Mal vivir’

“Ekuadorrek kanpo zorraren ordainketaren gainetik ‘Buen vivir’ xedea lehenetsi duen bitartean, Espainiak juxtu kontrakoa egin du: PP eta PSOE ados jarri, konstituzioa aldatu, defizitari muga jarri eta zorraren interesak ordaintzea edozein gastu publikoren gainetik jarri dute”.

Zure etxeko errepublika independentea

“Ikearen iragarkiaren ideia hori oso arriskutsua da komunitatea atomizatzen duelako. Bakoitza bere etxean sartzen da eta han oso gustura egoten gara lkeako altzari pila dugulako, baina horrek egiten duena da kanpoko harremana galtzea eta sare sozialak ahultzea”.

Zure master bukaerako lana, *Kritika feminista bat zorrari*, nondik nora doa?

Oso diskurtso perbertsoa dago herrialdeen zorraren inguruan. Zor handia baldin badago da gehiegizko zorpetze pribatua egon delako, batez ere enpresa eta bankuen aldetik. Hainbat mekanismoren bidez zor pribatua zena zor publiko bilakatu da eta horren ondorioz pertsona gutxi batzuek erabilitako dirua denon artean ari gara itzultzen. Gainera, historia errepikatu egiten da. 80ko hamarkadako krisiak eta oraingoak jatorri bera dute eta modu bertsuan ari dira kudeatzen. Urte horietan Hego Amerikako herrialde askorekin egin zutena orain Europa hegoaldekoekin egiten ari dira.

Hala ere, bada itxaropena izateko arrazoirik. Adibide moduan begiratu daiteke 2008an Ekuadorren onartutako konstituzioan egin zuten lanaren birdefinizioa. Lehen ekonomikotzat hartzen ez ziren lan batzuk ekonomia- ren barrukotzat jotzen dituzte orain. Hor bada emakumeen lanaren aitortza. Andeetako mundu-ikuskeran oinarritu dira haiek deitzen duten “*buen vivir*” kontzeptua definitzerakoan. Oreka lortu behar da pertsona eta naturaren artean. Konstituzioan bildu dute eta hori kapitalismoaren logikatik aldentzea da, teoriarik bederen. Gero hori nola gauzatzeko den beste gauza bat da.

Horren ondorioz ikusi al da Ekuadorren?

Correa ez da feminista, eta abortuaren afe- ran esate baterako oso jarrera erreakzionarioa du, baina beste alorretan, kanpo zorrari adibidez, oso erabaki interesgarriak hartu dituzte. Konstituzioa onartu baino lehen, Ekuadorreko zorraren auditoria publiko hiritar bat egin zuten. Datuak bildu ondoren ebatzi zuten zorraren zer atal zen zilegi eta zein ez, eta azken hori ordaintzeari uko egin zioten. Interesak ez ordainduz 7.200 milioi dolar aurreztu zuten eta hezkuntza, osasuna eta gizarte politikerak bideratu. Adibide ona da ikusteko nola kanpo zorra beste modu batez kudeatu daitekeen. Askotan oso euro- zentristak gara eta ahazten zaigu Hego Amerikara begiratzea ikusteko han zer alter- natiba ari diren proposatzen. Han egin duten auditoria, esate baterako, oso interes- garria izanen zen Espainian edo Grezian egitea, zalantzarik gabe. Badira plataformak Europako toki askotan hori eskatzen dutenak.

Argentinan ere, beste modu batez, baina 2001-2005 bitartean uko egin zioten zorra ordaintzeari. Adibide onak dira ikusteko estatu batek uko egin diezaiokeela ordain- keta honi. Eta marineek ez zituzten inbadi- tu. Zergatik? Arriskutsuagoa delako jen-

OFF THE RECORD

Peruko emakumeekin

25 urte besterik ez eta ideiak oso garbi ditu. Orain bere kemena eta liburu pila maletan sartu eta Perura joan da laugarren aldiz. Aurrekoetan Emakumearekiko konpromezua izeneko GKEarekin elkarlanean aritu da bertakoekin, alderdi feminista eta ekologista batzen dituen hainbat proiektutan. Orain haiekin jarraitzeaz gain, feminismoa alor unibertsitarioan zabaltzea eta bertan eskola feminista bat antolatzea ditu helburu.



deak eta beste herrialdeek jakitea aukera hori badela, zorra ez kobratzea baino. Ez dute nahi halako efekturik sortzea munduan. Estatu Batuek 2004an Irak inbaditu zutenean, haiek ere uko egin zioten zorra ordaintzeari, diktadore batek eragindakoa zela argudiatuz. Eta horri ez zioten batere publizitaterik eman.

Euskal Herrian ezagutzen ditugun auzolana, emakumeen garai bateko ustezko matriarkatua... balore onak dira ekonomia berri bati ekiterakoan?

Auzolanak logika kapitalista eta patriarkalak erabat hausten ditu: denon artean erabaki zer behar dugun eta denon artean egin. Emakumeen papera, aldiz, mitifikatu egin da. Matriarkatua ez da inoiz existitu hemen. Emakumeak garrantzitsuak izan dira baina etxe barruan; etxekoandreak. Gizartean ez. Baserria herentzian hartzen zutenak gizonak izaten ziren. Erreginaren diskurtso engainagarria da hori: zu etxeko erregina zara. Ados, oso ongi, eta etxetik kanpo zer naiz? Kontuz ibili behar da horrekin.

Kargu altuetan dauden emakumeen papera zer iruditzen zaizu?

Emakumeok, diruarekin bezala, boterearekin ere ez dugu harreman onik. Ematen du boterea lortzen dugunean gure jarrera maskulinizatu behar dugula benetan kasu egin diezaguten. Badirudi agresiboak izan behar dugula, gehiago oihukatu, eta nik uste dut boterea beste modu femeninoago batez birplanteatu behar dela. Bestelako baloreak sartu behar ditugu: gauzak eztabaidatu, modu kolektiboan egin, boterea konpartitu... Historian zehar gertatu dena izan da esfera publikoan balore maskulinoak nagusitu direla, femeninoak esfera pribatuan geldituz: altruismoa, elkartasuna eta abar. Orain krisiarekin egunero ikusten ari gara nola balore femenino horiek ari diren zabal-

tzen. Hipoteken kontuekin jendea elkartzen ari da eta lan kolektiboak aldarrikatzen. Herrialde askotan oraindik gauzak modu kolektiboan mantentzen badira ere, globalizazioak bizimodu gero eta individualistagoa sustatu du.

Nolakoa da erlijioaren eragina emakumeen bizimoduetan?

Kontuan hartu behar dugu erlijioa, zuzenbidea, ekonomia edo beste edozein instituzio bezala, patriarkatuak erabiltzen duela bere interesen arabera. Gauza bat da erlijioa eta beste bat nola erabiltzen den. Nik adibidez oso ikerketa interesgarria egin dut feminismo islamikoari buruz eta aitortu beharra dut eskemak hautsi zaizkidala. Feminista islamiarrek planteatzen dute korana berez ez dela matxista, horren inguruan egiten diren interpretazio batzuk baizik. Oso diskurtso interesatua da esatea “begira zeinen gaizki dauden zapia eraman behar izaten duten emakume gaixo horiek”, zu ez konturatzeko zer pairatu behar duzun zure eguneroko bizimoduan. Mendealdarroi eskatzen digutena da aldeztetik ez epaitzeko.

Femen bezalako mugimenduak: onura ala kaltea feminismoarentzat?

Pare bat gauza, behintzat, onartu behar zaizkie: ekintza entzutetsuak egiten dituztela emakumeen bizitza eta gorputza kontrolatzeko Elizak duen obsesioa salatuz eta, beste aldetik, gure gorputza borrokatu bezala erabili dezakegula oroitarazten digute, feminismo instituzionalak ahaztu duen zerbait. ■



DONOSTIA BERRERAIKITZEN

1813ko abuztuaren 31ko biharamon luzea

Aliatuek Donostia suntsitu eta egun gutxira Zubietako bileran hiria berreraikitzea erabaki arren, hondamendiaren ondorioak hurrengo hilabeteetan eta urteetan nozitu ziren. Donostiarrek laguntzarik gabe, arpilatuta eta epidemiek jota ekin behar izan zioten hiria berreraikitzeari.

| NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA |

1813KO ABUZTUAREN 31KO Donostiako suntsiketaren kontakizun labur eta soilak Zubietako Aizpurua baserrian izan ohi du amaiera zoriontsua. Irailaren 8an eta 9an, hainbat donostiar bertan bildu ziren astebete lehenago gertatutakoari erantzuteko. Kanpoan, berehala, mapatik desagertuta-kotzat jo zuten hiria. Madrilgo *La Gasetak*, gertatutakoaren berri eman zuenean, zera erantsi zuen: “Donostiatik bere kokapenaren oroimena besterik ez da geldituko”. Zubietan bildutakoek, ordea, udal berria osatzea eta hiria berreraikitzea erabaki zuten; erabakitakoa gauzatzea beste kontu bat izan zen.

Abuztu amaieran gertatutakoa bat-batekoa, gordina izan bazen, 1814ko neguko hondamena hotzagoa, mantsoagoa, isilagoa izan zen, oso bestelakoa, baina izugarria berdin.

1814 eta 1817 artean, harresiez kanpoko auzoetako biztanleek ez zuten Espainiako Gerra Ministerioaren baimenik lortu etxeak berreraikitzeko

Laguntzarik ez

1814ko otsailaren 20an Gregorio Iturbe alkateak gutun bat igorri zuen Espainiako Erregeordetzara, laguntza eske eta erantzunik ezaz kexu. Sarreran Donostia “munduko hiririk zorigaiztokoena, ia izate fisikorik

gabea, eta izate moralaren azkenetan dena” zela zioen gutunak. Iturbe eta gainerako zinegotziek zioten bost hilabeteetan bitan ahalegindu zirela hiriaren egoeraren berri ematen eta laguntza lortzen, baina Espainiako Kongresuak ez ziela ordurarte erantzun.

Madrilgo agintariek entzungor egin zieten, hirugarrenez. Suntsiketaren arduradun militarrengana ere jo zuten, berreraikuntzarako nahiz soldaduek jaten zituzten anoa berak jasotzeko laguntza eske. Graham, Castaños eta Alava jeneralek ez

SAN TELMO MUSEOA



GIPUZKOAKO ARTXIBATEGI OROKORRA



Ezkerrean, *Zubietako bilera* lan anonimoa. Eskuinean, bilera hura egin zen Aizpurua baserria, 1814ko argazkian. 1813ko irailaren 8an eta 9an Donostiako Udala berrito osatzea eta hiria berreraikitzea erabaki zuten han bildutakoek.

zuten erantzun. Wellingtonek, bai: atzerritarra zela eta lurraldeaz ezertxo ere ez zekiela. Sutearen ondorengo egunetan bertan, erai-kinen hondakinak garbitzeko laguntzarik ez zen izan, eta inguruko herrietan lantaldeak antolatu behar izan zituzten lan horretarako. Ez Espainiako Gobernutik, ez haren aliatuengandik, ez zuten kalte-ordainik, dirulaguntzarik edo finantzaketa biderik jaso, hiria berreraikitzeke.


Hiria suntsitu eta hurrengo hilabeteetan, harresien barruan 300 biztanle inguru geratu ziren. Donostiar gehienak kanpoko 400 bat baserrietan bizi ziren. Baina harresiz kanpo hiria berreraikitzerik ez zegoen. 1814 eta 1817 artean, kanpoko auzoetako biztanleek ez zuten Espainiako Gerra Ministerioaren baimenik lortu etxeak berre-raikitzeke.

Laguntza sinbolikoa 1816an iritsi zen. Fernando VII.a erregeak bere burua hiriaren babesle izendatu zuen. Baina 1824ko uztaileko agiri batek dionez, hiriak kalte-ordainik jaso gabe jarraitzen zuen. Erregearen laguntzak ez zuen maila sinbolikoa gainditu 1828ko ekainaren 10ean, Plaza Berriko Udaltxeko lehen harria jarri zutenean.

Harrapaketa bai

Laguntzarako jarrera pasiboa izan arren, arpilatzean aktiboki jardun zuten suntsiketaren erantzule militarrek. Arpilatzea sua itzali baino lehen hasi zen. Lapurtutakoa ingelesen kuartelaren parean saltzen zuten, Graham jeneralak ezikusiarrena egiten zuen bitartean. Irailaren 4an bertan Gipuzkoako Diputazioak harrapaketa eteteko eskaera egin zuen, alferrik. Arpilatzea hilabetetan luzatu zen. Jarduera apaldu bazen, zer lapurtu apenas geratzen zelako izan zen. Azaroaren amaiera aldera, San Martin auzoko hainbat

Arpilatzea hilabetetan luzatu zen. Azaroaren amaieran San Martin auzoko hainbat etxejabek salatu zuten ofizial ingeles batek beren etxeetako harlanduak eraman nahi zituela.



Donostiako harresietatik ikusten zen ikuspegia margotu zuen Didier Petit de Meurville XIX. mendean. Sutearen ondoren donostiar gutxi geratu zen harresien barruan, 300 bat. Gehienak kanpoko auzune eta baserrietan bizi ziren orduan.

etxejabek salatu zuten ofizial ingeles batek beren etxeetako harlanduak eraman nahi zituela.

Eta lapurreta zuzenak zeharkakoari egin zion bidea 1814ko udaberrian, tragediaz negozioa egiteko eskrupulurik ez zuten espekulatzailen eskutik. Sutearen aurretik urteko 900 errealeko errenta zuten biltegiengatik 12.000 eskatzera iritsi ziren. Udan ogiaren prezioaren igoerak protestak eragin zituen.

Gutxi batzuk aberasten ziren bitartean, herritarrak miseria gorrian bizi ziren, neguko hotzaz babesteko aukerarik gabe. Ingurua basoz josita egon arren, egurra garraiatzeko baliabiderik ez zegoen. Igeldoko itsasargia piztuta atxikitzeke egurrik gabe ere geratu ziren.



Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Donostia ez zen bakarra izan

DONOSTIA izan zen 1813ko udako biktima nagusia. Hango hondamendiak ez zuen parekorik izan. Baina frantziarren nahiz aliatuen gehiegikeriak Euskal Herriko beste hainbat tokitan ere izan zuten eragina.

Bilbo frantziarrek setiatu eta hartu zuten, Christophe-Antoine Merlin jenerala buru. Dozenaka hilketa eta bortxaketa izan ziren. Hainbat etxe erre zituzten, eta elizak, ondasun preziatuenak gorde ohi zituzten eraikinak, arpilatu zituzten.

Gasteizko gudua Arabako lautadan jokatu zen 1813ko ekainaren 20 eta 21ean. Bi aldeetan hildako asko izan ziren, gehiago tropa napoleonikoen artean. Baina zibilen kontra ez zuten errepresaliarik hartu. Hori bai, arpilaketa izugarria izan zen, gure lurraldean aurrekaririk gabekoa. Gudua irabazi ondoren Wellingtonek ez zuen esperotako espolioa egiterik izan. 275.000 libera inguruko balioa zuten ondasunak bildu zituen, baina altxorrik preziatuenak, hala nola Rafael, Velázquez, Tiziano, Rubens edo Zurbaranen chunka koadro, frantziarrek eraman zituzten –gerora aliatuek berreskuratuko zituzten arren–. Soldaduei nahi adina arpilatzeko baimena eman zien jeneralak; Gasteiz eta inguruak doako azoka erraldoi bihurtu ziren tropentzat. Herritarrek ahal zutena soinean eramanda, presa-ka, alde egin zuten, eta bidean gehienek ondasun eskas horiek



Gasteizko gudua, 1813ko ekainaren 21ean. W. Heathen grabatua (1814).

ere eman behar izan zituzten, bortxaketak eta hilketak saiheste-ko.

Abuztuaren 31n bertan, Irun inguruetan, San Martzialeko bigarren guduan, bi bandoetan hildako ugari izan arren, zibilen bajak urriak izan ziren. Herritarren kontrako errepresaliarik ez zen izan.

Baina hilketa, lapurreta edo bortxaketa sistematikoak egiteko baimen edo agindu “ofizialik” ez izateak ez du esan nahi albo-kalte latzak ez zeudenik. Esaterako, San Martzialeko guduaren bihar-munean, handik galtzaile erretiratutako hainbat soldadu frantziarrek ingeles eliteko tiratzaile talde batekin topo egin zuten

Alkaiaga (Lesaka) eta Bera lotzen dituen San Migel zubian; 200dik gora hildako izan ziren. Alegia, gudu handien itzalean nonahi gatazka txikiagoak sortzen zirela. Eta militarrek tiroka hasi gabe ere, zibilek haien igarotzea nozitu zutela. Frantziar tropek Baiona zuten inguruko base nagusia. Wellingtonek Lesakatik prestatu zuen Donostiako eraso. Gasteiz-zen galdu ondoren, tropa frantziarrak Iruñera erretiratzeko hasi ziren, Baionarako bidea etenda zutelako, besteak beste Gometxan eta Agurainen geldialdiak eginez. Eta batzuek zein besteek, garaile nahiz galtzaile, ez zuten erreparorik, behar edo nahi zuten guztia baimenik gabe hartzeko.

Falta zena: malaria

Udalaren finantza porrota erabatekoa zen. Udal medikurik ez zegoen, ospitalerik ere ez eta, hala, donostiarrak babesgabe zeuden gaixotasunen eta epidemien aurrean. Ibaetako ihitzetako jabe Juan Miguel Zata-rainek ere ez zuen nonbait zingirak sano-tzeko dirurik, eta anofele eltxoak ugaltzeko inguru ezin hobe topatu zuen bertan. Garaiko kroniken arabera, duela 200 urte-ko neguan malariak eguneko 8-10 heriotza eragin zituen. Soldadu aliatuek baino

donostiar gehiago hil zituen helgaitzak, milatik gora. Udalak berehala Zata-raini zingirak garbitzeko agindu arren, lurjabe egoskor eta arduragabeak afera epaitegieta-raman zuen, eta hiru urte behar izan ziren inguru kutsakorra sanotu eta epide-miaz libratzeko.

Eta askoz urte gehiago sutea-ren ondorioak itzaltzeko, milita-rrek utzitako zor kalkulaezina kitatzeko eta Zubietan erabakita-koa gauzatzeko. ■



Burujabetzaren aldeko kooperatiba

Sistemaren mugetatik at, herritarrek era burujabeen euren beharrak asetzearen aldeko ekimena da Herri Kooperatiba. Batez ere Iruñerrian jarduten bada ere, bokazio nazionala du, eta gaur egun bertako bazkide dira 30 proiektu inguru.

| MARTIN VICIOSO |

EKONOMIARI BURUZ Auzolan ekimenak antolatutako jardunaldi batzuetan du sorburua Herri Kooperatibak. Estatuak eta merkatu sistema kapitalistak sortzen dituzten menpekotasunetik askatu ahal izateko, herritarrek ahal duten heinean euren beharrak elkarlanean ase behar dituztela ondorioztatu zuten. Iruñerrian hasi ziren elkartzen, eta pixkanaka herritar sarea osatzen ari dira. Hainbat arlotan jarduten duten pertsonak batu dira, eta ahal den neurrian, elkarren premiak asetzen dituzte auzolanean. Kooperatibako kide Liher Unanuek azaldu duenez, elkarlanean oinarritutako proiektu eta talde ugari dituzte. Besteak beste, nekazariena, elektrikariena, margolariena, eta genero formazioa eskaintzen duen taldea. Lehenik eta behin, taldeko kideen beharrei erantzuten saiatzen dira. Hala ere, kanpora begira ere egin behar izaten dute lan. Helburua, ahalik eta esparru zabalean burujabe izatea da.

Izenak adierazten duen moduan, kooperatiba moduan egituratuta daude. Dena den, azpimarratzen dutenez, “ohiko kooperatibaren enpresa eredua gaingitu” nahi dute. Elkar-laguntza eta autogestioa oinarri, erabakiak asanbladetan hartzen dituzte. Proiektua Iruñerrian garatu eta talde eragilea bertakoa den arren, batzarrak Euskal Herri osora zabaltzen dituzte. Asanblada irekiak izanik, horiek baliatzen dituzte sarea handitzeko. Herri Kooperatibaren filosofiarekin bat egiten duten beste proiektuek ekimena ezagutzeko eta euren partekatzeko aukera izaten dute. Haatik, “hazte hutsak” ez du interesik haientzat.

Eguneroko lanak taldetan bereizi dituzte. Kudeaketa ekonomiko eta juridikoak eskatzen du momentuz lan gogorrean, Unanuek ustez. Harrera taldea proiektua ezagutarazteaz arduratzen da, eta ostegunero



AUZOLAN EKIMENA

Argazkian, txanpon sozialen inguruko topaketa.

Iruñeko Alde Zaharreko Dormitaleria 54 gunean izaten dira edozein zalantza argitzeko prest. Koordinazio lantaldeak berriz, asanbladak antolatu eta proiektuen arteko lotura eta komunikazioa lantzen ditu.

Txanpon soziala

Euroarekiko menpekotasuna gaingitzeko bidean, txanpon sozialaren formatua erabiltzen dute barne funtzionamendurako. Hego Afrikan sortutako CES softwarea baliatuz, haien arteko trukeak egiten dituzte. Zerbitzuak ematean eta jasotzean erabiltzailearen saldoa aldatzen da. Nabarmendu dutenez, sistema egokia da Kooperatiban harreman zuzenik ez duten proiektu eta bazkideak ere trukean aritzeko. Hala ere, ahal den neurrian sinpletasunaren alde egiten dute, eta ahoz aho truka badezakete, hobe.

Txanpona kalera atera izan dute. Esaterako, Iruñeko Alde Zaharrean azoka soziala antolatu zuten bertako eragileekin batera pasa den otsailaren 15ean. Trukeak sistema honen bitartez gauzatzeko parada izan zen, eta antolatzaileen esanetan ekimenak harrera ona izan zuen.

Kooperatiba integralen alternatiba azken urteetan hazten ari da. Krisiak bultzatuta, herritarrek euren beharrak asetzeko bide berriak aurkitzeko premia dute. Unanuek Kataluniako Cooperativa Integral Catalana nabarmendu digu adibide gisa, eta gero eta ohikoagoak dira antzeko ekimenak Europan. ■



TXAKOLINA

Ezaugarri bereziak ditu Euskal Herriko mahastigintzak

“Baserriko ardoa” edo “baserrian egiten den ardoa” omen da txakolin hitzaren esanahia. Edari honen ekoizpen prozesuan Euskal Herriko mahastigintzak dituen ezaugarri bereziak ezagutu nahi izan ditugu, eta Getariara gerturatu gara horretarako.

| IRATI SARASUA ARABAOLAZA |

MAHASTIGINTZA belaunaldiz belaunaldi, eskuz esku, pasatu den tradizioa da Getariako Txomin Etxaniz txakolindegian. Hitzordua egin dugu bertako arduradunetako batekin, Iñaki Txurrukarekin; bizibide dute txakolina eta bodega inguratzen duen lurraren sekretuak kontatu dizkigu. Paraje ederra du etxeak inguruan: parean itsaso zabala, eta amildegiak diruditen aldapak mahastiz josita.

Bisita gidatu honetan, atzera begiratu dugu lehenik: 1500. urteko dokumentu batzuetan agertzen dira inguruko mahastien erreferentziak. “Gure familiaren mahastiarren lehen erreferentzia 1649. urtekoa da. Zehazki, Oñatiko dokumentu batean agertzen da”. Geroztik familia bereko bost belaunaldi arduratu dira hori mantentzeaz. “Getaria bereziki arrantzale herria izan da, aberastasunean eta bizibidean arrantza izan da nagusi. Gure familian, ordea, ez da hala izan”. Getarian bakarrik ez, Euskal Herri osoan egin da eta egiten da txakolina. XX. mendearen hasieran garrantzi handia izan zuen Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan. Nafarroari dagokionez, Iruñerrian eta Agoitzaldean egiten da batik bat. Garai batean Ezkabako txakolina oso ezaguna zen, baina gaur egun etxerako egiten dute inguru horretan, ez dute merkaturatzen. Txakolina ekoizteko mahastiek 700 hektarea hartzen dituzte gaur egun Euskal Herrian; horietatik 350 inguru Getarian daude, beste 300 bat hektarea Bizkaian, eta gutxi gorabehera 77 Araban. 2010 urtean 330.000 botila ekoitzi zituzten Araban, eta datozen urteetan kopurua handitzea espero dute. Haatik, Bizkaian

eta Gipuzkoan produzitzen da txakolin kopuru handiena.

Bi lurraldeek ezaugarri antzekoak dituzte, Txomin Etxanizen inguruan dauden lurrak



bezalakoxeak dira gehienak, malkartsuak. Eta horrek zaildu egiten du lana: klimari eta lurra-ri dagokionez ez dituzte txakolina egiteko ezaugarri egokienak, eta ondorioz, mahastigintza egokitu egin behar izan dute urte hauetan. “Eguzki beharrean gaudenez, mahastiak ahal bezainbeste eguzki jasotzeko moduan kokatzen ditugu”, azaldu du Txurrukak. Haize hotza ere kaltegarria da mahastientzat, eta horregatik, Galiziatik datorren haizeari bizkarra emanez jartzen dituzte mahastiak. Hezetasuna ere ez denez egokia, ahal den neurrian saihesteko mailakatuta jartzen dituzte, eta behar duen haizea jasotzeko mahastiak lurretik metro bateko altueran kokatzen dira. Ezaugarri horiek guztiek mahastigintza berezi bat sortzen dute, ez baita halako ezaugarriak dituen beste lekurik ezagutzen.

Horri guztiari azkeneko uztaren arazoak gehitu behar zaizkio. “Aurtengo uza oso konplikatu izan da. Lore garaian haizeak jo zuen eta asko izorratu. Argia ere handia izan zen. Aurreikusten dut hamarretik lau baino ezingo dela batu”, azaldu du Txurrukak. Udaberri eta uda hasieratik izandako klimak eragina izan du aurtengo txakolinean. 2012

urtearekin alderatuta, %40 jaitsi da uza Bizkaian; aurtengo ekoizpena 999.428 litrokoa izan da. Bizkaiko Txakolinaren Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arautzaitetik diotenez, ekaineko eguraldia izan da arrazoia: “Bizkaiko Txakolin gutxiago egongo da eta gainera beranduago iritsiko da. Udaberri bukaerako edo uda hasierako tenperatura baxuek mahatsondoaren heltzea atzeratu dute”. Kopuruz txikiagoa izango bada ere, kalitate onekoa dela nabarmendu dute; uda eguraldi eskasarekin hasi bazen ere, uztailko eta abuztuko klimatologiak mahatsa heltzea lagundu duelako.

Gipuzkoan, Getariako Txakolinaren produkzioa ere jaitsi egin da; 2012ko uztarekin alderatuta, %45. Zehazki, 1.500.000 kilo mahats eta, batez beste, 1.250.000 botila. “Aurtengo txakolinak fruitu gustu handia, kolore berde arina eta garraztasun puntua du”. Hala deskribatu dute adituek.

Eskulana oinarri

“Bakoitzak erabaki behar du zenbat lur duen, nolakoa, zein produkzio egin nahi duen, zein txakolin mota atera eta zein errendimendu lortu dezakeen. Azkenean, hori dena eginda

Txakolina ekoizteko mahastiek 700 hektarea hartzen dituzte Euskal Herrian; horietatik 350 inguru Getarian daude (irudian).



TXOMIN ETXANIZ



Malkartsuak dira Euskal Herriko lurrak, eta klimari dagokionez ere, ez dira txakolina egiteko baldintza egokienak. Ondorioz, mahastigintza egokitu egin behar izan dute urte hauetan. Ezkerrean, Txomin Etxaniz txakolindegiko Iñaki Txurruka azalpenetan; eskuineko irudian, Mungiako mahasti bat.

ezin baduzu horretaz bizi, aldatu egin beharra duzu, eta girora, lurrera eta merkatura egokitu. Hala ere, gai horrekin debatea dugu”, adierazi du Txurrukak.

Jabeek nabarmendu dute eskulan handia duela txakolinak, hainbat tratamendu mekanizatzea lortu badute ere. Aldapak %28 edo %30 graduak direnean adibidez, ezin dira makinak sartu, eta horrek lana zailtzen du. Txomin Etxaniz txakolindegian, bodegaren alboan, aldapa handi bat dago, eta lur hori ere erabilgarria izan dadin bi metro inguruko koskak egin dituzte, errendimendua lortzeko. “Aldapa handiak mantentzea zailagoa da, lurjausiak sortzen direlako, baina probetxua ateratzea garrantzitsua iruditzen zaigu”. Errenkan jarri dituzte aldapa horretan mahastiak, bestela lurra ez delako erabilgarria. Maldan jarrita bi-hiru lanpostu sortu eta errentagarri bilakatu dutela azpimarratu digute.

Mahasti guztia kimatu egiten da, eta ondoren, lotu; hori ere eskuz egiten dute. “Guk 42 hektarea lantzen ditugu, eta beste 20 bat hektarea beste hainbat mahasti-zalek. Guztira hamasei lagun ari gara lanean, eta lanpostuak sortzeko bide egokia dela deritzot”.

Mahatsetik botilara

Txakolin zuria da, seguruenik, ezagunena, beltza edo gorriaren aurretik. Getarian esaterako, txakolin guztiaren %97 zuria da. Bi mahats erabiltzen dituzte txakolina egiteko: Ondarrabi Zuria eta Ondarrabi Beltza. Lehen da txakolinaren oinarria; bizitasuna eta garraztasuna ematen dizkio. Bigarrenaren garraztasuna baxuagoa da, eta zuriak darman agresibitatea baretzen du, orekatu egiten du. Euskal Herrian ez dago txakolin gorria edateko ohitura handirik, baina kanpoan bai; batez ere Amerikara esportatzen dute. “Asko gustatzen omen zaie, hemengooi baino



Liburu azoka

Laudion, martxoaren 14tik 23ra Lamuza plazan.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

gehiago. Guri edari fuerteagoak gustatzen zaizkigu; gorria ez da hain gogorra”, azaldu du txakolingileak.

Mahats beltzak txakolin zuria egiteko ere balio du. Nolako txakolina nahi den erabaki behar da dolarean sartu aurretik, bertan izaten den denboran hartzen baitu kolore bat edo bestea. Dolarean egon ostean, muztioa lortu eta bi ontzitan sartzen dute, 24 orduz garbitzeko. “Beti ekartzen du posoa, hondar pixka bat. Hotzarekin freskatu eta garbitzen uzten dugu”. Ondoren, muztio garbia hartu eta irakiteko ontzietara pasatzen dute. “Geratzen den hondarra traktore batek eramaten du, aztertu egiten dugu, eta mahastietarako ongari gisa birziklatzen dugu”. Horretarako, urte batzuk igaro behar dira, baina prozesu gero eta erabiliagoa da.

Ur gozoa da muztioa, ura azukrearekin. Muztio hori hartzidura prozesura pasatzen da, eta alkohol bihurtzen da bertan. Fase horretan karbonikoa produzitzen du. Tenperatura kontrolatuta izatea komeni da, tenperatura asko igoz gero abiadura handia hartu eta osagai aromatiko asko desagertuko baitzaizkio, eta hotza bada berriz, ezin izango duelako irakin. “Beraz, tarte bilatu behar da. Guk 16-18 gradu inguruan irakiten dugu, eta ordenagailuen bitartez kontrolatzen dugu, arazorik egon ez dadin”.

Nahi duten produktua lortutakoan botilaratzen hasten dira, otsaila inguruan. Baina ez dute dena batera botilaratzen, behararen arabera baizik, ontzian ondo mantentzen delako.

Birbirra ere bai

Txomin Etxanizeko bodegan ez dute txakolina soilik ekoizten, ikerketarako gunere bada: mahasti ezberdinekin probak egiten

dituzte. Egun, bodegako bost ontzitan ikerketa lan bat ari dira egiten unibertsitateekin batera. Zein ezaugarri eta zein legami mota komeni zaien ikusteko balio die.

Horrez gain, beste bi produktu ere egiten dituzte: xanpaina da bat –birbirra deitzen zaio Euskal Herrian eta txakolinaren oinarria hartzen da, irakinda–, eta besteak berantiarra du izena. “Azken hori Pello Zabalak udazkena zoragarria izango dela esaten digunean bildu gabe uzten dugun mahastitik ateratako edaria da. Mahats horiei hostoa kentzen diegu eguzki gehiago jaso dezaten eta hala

gradua igotzea lortzen dugu. Helburua ahal den ur gutxiena eta azukre gehiena lortzea da”, diosku Txurrukak. Beharrezkoa den muga horretara helduta, azukre askoko muztioa lortzen da, eta irakin ostean 12 graduko alkohola. Beraz, 12 gradu izango ditu eta gozoa izango da. “Udazken ugaritan uzten dugu egiten, baina lehortze prozesu egoki hori lau urtean behin-edo lortzen dugu. Besteetan, ustel-

du egiten da, euri asko egiten duelako, edo beste hainbat faktoregatik. Ikusten duzuen bezala, Pelloren esanak oso kontuan hartzen ditugu etxe honetan”. Azken zortzi urteetan hirutan baino ez dute berantiarra lortu, aurrerantzean ere urtero saiaturiko diren arren: “Guretzako kapritxo bat da, produktu ezberdina; ardo oso berezia da, gauetan edateko aparta”.

Edariak dastatzeko aukera eman digu amaieran Txurrukak, eta zapore berezi horrekin amaitu dugu txakolinaren barrunbeetara egindako bidaia. Bisita gidatuak gустuko dituztela onartu digu: “Hemengo kontuak bisitariekin eta ardoaren mundua maite dutenekin partekatzeak badu bere xarma”. ■



Haize hotza kaltegarria da mahastientzat, eta horregatik, Galiziatik datorren haizeari bizkarra ematen jartzen dituzte mahastiak. Hezetasuna saihesteko mailakatuta egoten dira mahastiak

CuadraBus

www.cuadribus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxe: 945 892 215
info@cuadribus.com

ogiaren egia

Zatoz eta ezagutu garai batean egiten ziren ogiak, lehengo osagai eta teknikekin

Galparsoro OKINDEGIA

Antzinako ogiaren kabia bihurtu baitugu denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074



DANI BLANCO

Mikel Zurbano



EHUKO

IRAKASLEA,

EKONOMIALARIA

Global Foruma eta tokiko agiria

BILBON izan berri den goi-bileraren goi-buruaren bigarren zatiak erakusten du zein izan den ekitaldiaren asmoa eta oinarri ideologikoa: *Espainia Global Foruma: Egonkortasunetik Hazkundera*. Troikak eta erakunde multilateral doilorrenen ondoko mezua helarazi nahi izan digute, gaurko ezinbesteko estutasunak biharko onura ekarriko duela, alegia. Espainiako Estatuan krisiak zazpi urte eta doikuntza politikak lau urte beteko dituen honetan Bilbo aukeratu dute troikak eta hurbileko instituzioek (Europako Batzordea, NDF, EBZ, OECD...) egonkortasun ekonomikoaren apologia egin eta murrizketa politikak legitimatzeko. Lau urteotako estatu mailako doikuntzen porrota estali eta horien aldeko marketin instituzional lotsagarria egitera etorri dira Bilbora.

Europako Batasunaren (EB) eta euroguneko arauen berrikusketaren alde egiten da agirian eta merkatuaren logikaren ondorioz gizatalde eta irabazle zein galtzaileen arteko lubakia gutxitzeko elkartasun eta kohesioaren irizpideak lehenestea eskatzen da

Nolanahi ere, hitzordu horren karira bestelako ekonomia eta gizartearen aldarria egin da, oso modu zabalean egin ere. Kaleko agerpen jendetsuez harago, ekimen esanguratsu eta berria ere egon da, pertsonen zerbitzurako ekonomia baten aldeko agiria, alegia. Berria, arlo akademikotik horrelako goi-bileraren aurrean erantzun ozena ematea ez baita ohikoa, are gutxiago ekonomia eta enpresaren arloan. Esanguratsua izan da sinaduren kopuruaz harago –500 inguru, erdiak EHkoak– unibertsitateko irakasle horien aniztasun politikoa eta ideologikoa ere aipagarria delako.

Agirian austeritate politiken porrotaren ebidentzia ugari ematen da, hala nola, estatu mailako langabezia-tasaren igoera, enpleguaren kalitatearen narriadura,

pobreziaren eta gizarte-bazterketaren hedapen indartsua, desberdintasunen inoizko igoerarik larriena eta, baita murrizketa neurrien aitzakia diren hainbat indizeren porrota, hala nola zor publikoa BPGaren %100era igo izana. Honekin guztiarekin demokraziaren gainbehera eta estatu sozialaren aztarna oro galtzeko arriskua azpimarratzen da.

Salaketaz harago esku-hartze publikorako gaur egungo irizpideen aldaketa ere eskatzen dute sinatzaileek. Errentagarritasun ekonomikoa eta lehiakortasunaren kontzeptuak ezin dira izan ekonomi oinarriaren berezko azken helburu gisa hartuak. Horien ustez, ekitateak izan behar du ekonomiaren funtzionamendurako ezinbesteko lehen erreferentzia. Austeritate politikak sorrarazten dituzten muturreko desberdintasunak sozialki bidegabeak izateaz gain ekonomikoki efizientziaren galera ere eragiten baitute. Gainera, lehia ekonomikoa ezin zaiola ekonomi iraunkortasunaren printzipioari gailendu diote, efizientzia ekologikorik ezean ekonomiaren etorkizuna ustela delako. Horren guztiaren kudeaketa publikoak demokratikoa eta gardena izan behar du herritarren parte hartzearen mekanismoa lehenetsita. Europako Batasunaren (EB) eta euroguneko arauen berrikusketaren alde egiten da agirian eta merkatuaren logikaren ondorioz gizatalde eta irabazle zein galtzaileen arteko lubakia gutxitzeko elkartasun eta kohesioaren irizpideak lehenestea eskatzen da.

Agiriak haize freskoa dakar eta krisiaren inguruan dauden bi mito suntsitu egiten ditu. Lehen, krisiari aurre egitea arazo tekniko-ekonomikoa delako ustea. Merkatuen exigentziei erantzuteko neurri teknikoak dira balekoak troikaren esanetan. Baina arrazoi teknokratikoaren aurretik lehentasun politikoak daudela nabarmentzen du agiriak eta krisiaren irteerak diseinatzekoan politikaren beharra azpimarratzen du. Agiriarekin bigarren mito bat ere suntsitzen da, austeritatearen aurrean alternatibarik ez dagoela baieztatzen duena, alegia. ■





Iñaki Odrizola

IRAKASLEA ♦



DANI BLANCO

Hazkuntzaren ipuina

ZAZPI URTE BADIRA ustezko krisi madarikatua hasi zenetik. Ordutik hona hainbat aldaketa egon da, gure ongizateko estatua izorratzeko, gehienbat. Lehen ere ez geneukan sekulako “txollorik”, norbaitek hori pentsa dezagun nahi izan duen arren. Zegokiguna baino maila handiagoan bizi ginela esan digute, zego-kiena baino maila handiagoan bizi direnak, gaur egun ere. Denetarik egin digute etekinak ateratzen jarraitzeko.

Eta orain, desegindakoa atzean utzi, eta hasi dira, berriro ere, produktu berriak edo berriak asmatzen, merkatu eremu berriak irekitzen, gu kontsumorantz bideratzeko. Eta hasi zaizkigu, oraingoan ere, hazkuntzaren ipuinarekin.

Ilustrazioaren optimismo arrazionala, askatasun ekonomikoaren kontua, utopia teknologikoa, bi mende geroago eta bitartean ezer gertatu izan ez balitz bezala. Iragan hurbileko amnesia osoaz (etorkizunera begiratu behar omen da), lotsagabe, esaten digute hazkuntza dela bide bakarra, aurrerakuntza eta zoriona lortzeko.

Hazkuntzaren logikan harrapatuta, kapitalismoan kateaturik nahi gaituzte: inbertsioak hazi, produkzioa hazi, kontsumoa hazi eta, orduan, lana haziko dela ziurtatzen digute, eta sindikatuen laguntzaz (hau da hau), denok, gizon eta emakume, gazte eta nagusi,

soldatapeko lanaren eske gabiltza: lana nahi dugu, lan gehiago nahi dugu, denok lanean egotea nahi dugu.

Eta nik diot, zertarako hainbeste lan egin? Dirudunen etekinak gehitzeko? Behar ez diren tresnak produzitzeko? Propietateak (etxetxo bat, edo kotxe bat, bidaia bat) erosteko, hipotekan endredaturik bizitza guztirako? Natura eta ingurunea agortzen jarraitzeko?

Zertarako hainbeste lan egin?

Dirudunen etekinak gehitzeko?

Behar ez diren tresnak produzitzeko?

Niretzat, hazkuntzaren ideia hau erokeria da, izan iraunkorra, izan jasangarria. Hazkuntza oro jasangaitza da jendartearentzat, beti “plof” egiteko arriskuan jartzen gaitu, eta gutxi batzuen mesederako balio du. Hainbeste hazi beharrean, zergatik ez antolatu hazkuntzarik gabeko eremuak?

Kontsumoa orekatu, eta dagoenean mantendu. Produkzioa gutxitu, eta, horrekin lana jaitsi. Oinarrizko soldatarakin jendarte babestu, ingurugiroa zaindu, eta zerbait hazteketan, gehiengoaren ongizatea hazi.

Hau egingo bagenu, lan asko egin beharko genuke, baina soldatarik gabekoa. Bestela, azkenean, berriro ere, soldatapeko lanaren esklabo izango gara, eta merkatuaren gorpil eroak irentsiko gaitu. Hurrengo krisira arte. Ez, ala? ■



DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

Miliar miriadak

NDFko CHRISTINE LAGARDE moskota ez da ahalke. Ez aspaldi europar bankuek (omen) pairaturiko egonkortasun eskasaz mintzatu zen frantses kazeta ospetsu bateko orrialdeetan. Arduradunek udaberrian estres ariketa bat kudeatuko dute. Ikusiko da orduan galernari buru egitea lortzen duten estatu zenbaiten osagarria zertan dagoen. Bankuak ondo, herri-estatuak hondo: garai bekaitzetako dibisa entzutetsua.

Bere agerpenen arabera bankuak ekin-bide ekonomiko itsuaren biktimak litezke. Hondar sei urteotan Europa eta mundua larrutzen duten krisiaren eta zorrarengatik

daude ateka gaitz eta egoera larri horretan. Hemen datza manipulazioa: Lagardek biktima gisa aurkezten ditu krisiaren eta zorraren oinarrizko eragileak, bankarrota planifikaturik gertatu izan ez balitz 2008an estatuek ez baitzuten (agian) zerbitzu publiko ezberdinen finantzatzeko batzer-tu dirutza animalea —miliar miriadak alai-na...— bankuen salbatzeko sartuko.

Lagarde harro dabil, hatza lerden eta muturra zeken, gaizo bankuen aldeko sos biltze kanpainak sustatzen. Aterabidea badu, erraza: ordaindu beza herri-jende baliatzaileak. ■



**Txema Montero**

♦ ABOKATUA

Eta zer diot neronek?

EGIAZTATZAILEAK heldu ziren eta akta bat azaldu, baita komunitatu bat irakurri ere, eta bideoa erakutsi zuten. Ondoren, ia guztiekin bildu ziren eta are gehiago izango zela iragarri zuten. Politikariei entzutera, ezer ez da inozentea. Kazetariei entzunez gero, ezer ez da garrantzirik gabekoa. Polizieiei entzuten badiegu, ezer ez da segurua. Eta zer diot neronek? Bada, Goetheren *Fausto* lehenbizikoak dioen legez: “Bi arima bizirik dira, ai, ene golkoan”.

Desarmez ari baziren, ados egongo gara puntu hauetan: suzko lau arma, bi granada eta hainbat kilo lehergailu “erabilpenetik kanpo” utzi dituztela ziurtatzea, eta ez baliogabe, botila bat kortxo-gabetzearen parekoa dela, areago, edalontziak ez eskaintzea eta zanga-zanga ezin edatea bezalakoa dela.

Frantziarrek esatera haxe dute: “Nahiz eta zure izebak gurpilak izan, ez da inoiz autobusa izango”. Neronek ez naiz ausartzen izeba gurpildun horri desarma deitzen, eta horregatik kritikoa naiz, inoiz ez baitago bigarren aukera bat inpresio ona eman ahal izateko. ETak, bere egozentrismoa dela-eta, eta egiaztatzaileek, gutxieneko agerraldi honi abala eman izanagatik, lehen inpresio ona galarazi dute. Ez naiz pulpitura igoko denon izenean berba egiteko, baina irudipena daukat ETaren amiltze gozoak Euskadiko jendartean ezaxola adeitsu gero eta handiagoa sorrarazten duela. Espainian, aldiz, gero eta zalantza txikiagoa: “Baina horrek oraindik irauten al du?”. Kaosa izan zitekeena aharrausia izaten ari da, eta bitxikeria badirudi ere, antzinako greziarrentzat berba horrek gauza bera adierazten zuen.

Eta, hala ere, bide onean gaude. ETak bere burua engainatu arren, amets amaigabeekin, “gatazka armatua” ez zela botere inbertsonal gaiztoa onartzen ez duen arren, hots, bere militanteen ekintzen prozesu jarraikorra izan dela, delitua ohitura bilakatzearaino helduz, nahiz eta jarraitzen duen onartu gabe teoria oro bukatzen dela gizakien sen erreprimituak hasten diren unean, zorionekoak gu, azkenik amaieraren aurrean gaudelako.

Gure herrian ohikoa da, nekrofiliakoa nolabait esanda, hileta elizkizunaren ostean, lagunak, auzokideak, baita begiluzeak ere lekutik ez joatea, ezta senitatekoen ingurutik aldentzea ere, bizidunen artean gertakariari izaera sozial afektiboa eman nahi baitiogu, adeitsua eta kuxkuxeroa. Eta ez da falta hildakoa benetan hilda dagoela baieztatu ko duena ere.

Eliz atarian txutxu-mutxu luzeak erabiliz hildakoari buruzko zerbait esaten dutenen traza hartzen diot ETaren amaierari, beren bizitzari buruz luze jarduten dute ordea, defuntuaren gorpua –lurra emateko– kilometro batzuk harago daramaten bitartean hitz eta pitz jarraitzen dutenek.

Ordea, behin ETA desagertuta, bizitzeko geratzen zaiguna ez da harmonia soziala, oster, aha! legin eskerga egin beharko dugu lehenik bizikidetzatza lortzeko eta adiskidetasuna ondoren. Funtsuan eta finean, gizaki guztiok anaia-arreba izatera iristearen ideia ederra seme-alaba bakarra izatearen ametsa baino ez da. Diot. ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

**Ane Labaka
Mayoz**



Doinua: Gai horrek badu mamia.

Martxoak 8

Bihar gutako beste bat badaiteke ehortzi, men egiten badiezu Iker eta Karlosi, zure bi seme alabei makarroak egosi, ta senarrari laneko galtza zaharrak josi, bertso saiotan sentitzen banaiz erdi lorontzi... Zergatik ospatu behar dugu martxoak 8?

Ospatu ez, borrokatu egin leike gogor hitz baina nahastu nahi nuke egutegiko orriz, 8a, 25a markatuta jatorriz, berdintasun faltsuaren oihuak bat-etorritz, zenbat emakume bizi diren izu-laborritz, egun gehiegi tindatu ohi direlako gorritz.

Ez dira soilik kolpeak, bizitza ahitzea... denoi gertatu baitzaigu begirada blaitzea, parrandan edo lanean norbaitek iraintzea, ikusezin bihurtzea ta guztiz txikitzea. Gure alde izateko askatasun haizea, aukera bakarra dugu: borrokan jarraitzea. ■



Emakumeak Hollywooden, fikzio hutsaren hurrengoa

New Yorkeko Film Akademiak generoaren ikuspuntutik aztertu berri du Hollywoodeko zinemagintza. Eta ikerlanak ez du estereotipo zaharkituak hautsiko dituen emaitza harrigarriarik eman. Hollywoodeko industrian genero berdintasunik ez dagoela bagenekien, baina orain zenbakiak baieztatu dute.

| NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA |

GRAVITY azken urteko filmik arrakastatsuenetakoa Sandra Bullock aktorea bizirauteko gogor borrokatzen den rolean aritu da, normalean testosteronaz gainezka egiten duen generoan. *The Hunger Games: Catching Fire* akzioko filmak ere dirutza bildu du takilletan. Bertan, Jennifer Lawrencek bigarren *Katniss Everdeen* arkulari estoiko eta erabakiaren rola jokatu du, etorkizun duinagoa bere eskuetan duen borrokalariaren rola. Generoaren ikuspuntutik, AEBetan ekoizten diren filmak, munduan gehien ikusten direnak eta, beraz, publikoan eragin handiena dutenak, genero berdintasunetik hurbilago dauden ilusioa sor dezakete bi adibide hauek. Baina Hollywood espezialista da ilusioa sortzen, itxurakerian, ondo errotutako kontserbazionismoaren gaintik progresismo faltsuzko berniz geruza fin baina distiratsua ematen.

New Yorkeko Film Akademiak *Genero Berdintasunik eza* zinemaren izenburuko txostenean ez ditu filmen edukiak aztertu, Hollywoodeko film industrian, kameraren aurrean nahiz atzean, lanean ari direnen datuak bildu ditu, pantailan islatzen den desberdintasuna zenbakitan emateko. Hain zuzen, *The Hunger Games: Catching Fire* filmak estreinaldian izan zuen arrakastak bultzatu zituen erakunde horretako arduradunak emakumeak AEBetako zinemagintzan aurrera egiten ari ote diren ikertzeraz.

Emakumezko rola aztertzen ditu lehenik txostenak, 2007tik 2012ra bitartean diru gehien bildu duten Hollywoodeko 500 filmetan oinarrituta. Testua duten rol guztien %30,8 besterik ez dira emakumeentzat. Oso gutxi dira gizon eta emakume portzentaje berdintsua edo emakumezko rol gehiago duten filmak, hamarretik bat baino ez. Ema-



Jennifer Lawrence
The Hunger Games:
***Catching Fire* filmeko**
protagonistaren
rolean.

kumeak zuzendari lanetan daudenean emakumezko rolen datua gutxi igotzen da (%10,6), are gutxiago emakumeek gidoia idazten dutenean (%8,7). Baina pantailan gutxiago agertu arren, emakumeek gehiago “erakusten” dute; emakumezko aktoreen %26,2 “partzialki biluzik” agertzen dira txostenaren arabera, eta soilik gizonen %9,4 biluzten dira gidoiak eskatuta. Ikerketaren lehen atala biribiltzeko, New Yorkeko Film Akademiak emakumeak eta gizonak zine aretoetara berdinean joaten direla gogorarazten du. Ekoizpen horiek erdibana ordaintzen dituztela, alegia.

Begirada kameraren beste aldera eramanda, datuek okerrera egiten dute. Oro har, AEBetako film industrian jarduten duten sei langiletik bakarra da emakumezkoa. Daturik “positiboena” dokumentalen zuzendariena da; %34,5 emakumeak dira. Baina 2012an etekin handienak izan zituzten 250 filmen

zuzendari gehienak (%91) gizonezkoak izan ziren, eta, larriagoa dena, portzentajea ez da aldatu 1998tik. Emakumezko gidoilarien kopurua bi puntutan igo da azken 16 urtean, %13tik %15era. Ekoizle exekutiboenak, aldiz, puntu bat egin du behera eta %17an geratu da. Ekoizleen eta editoreen portzentajeek ez dute aldaketarik izan (%25 eta %20, hurrenez hurren).

Desberdin sarituak

Industriako ordainsari altuenak, Hollywoodeko aktore izarrenak, hartu dituzte aintzat soldatetan dagoen aldea azaltzeko. 2013an diru gehien bildu zuen emakumezko aktoreak, Angelina Jolie, 33 milioi dolar irabazi zituen; Robert Downey Jr. gizonezko aktoreak 75 milioi dolarreko dirutza egin zuen. Jolie gehien ordaindutako aktoreen zerrendan 9. postuan dago, Denzel Washingtonekin berdinduta. Orotara, gizonezko 10 aktore garestienek 465 milioi dolar jaso zituzten, eta 10 emakumezkoek 181 milioi, Forbes zerrendaren arabera. Lan bakarrarengatik jasotako 16 txeke potoloenen zerrendan ez da emakumerik ageri.

Soldata puztuez gain, aktoreek eta zinema-gintzako bestelako langileek, hainbat sari jasotzeko aukera dute. Txosten honek Oscar sariak hartu ditu oinarri. Akademiako sariaren 86. ediziotan soilik lau emakumezko zuzendari izendatu zituzten saridungai. Zerrenda 1976an ireki zuen Lina Wertmüller italiarrak, *Seven Beauties* filmarekin. 1994an Jane Campion zuzendariak jaso zuen nominazioa *The Piano* filmarengatik, eta 10 urte geroago Sofia Coppolak *Lost in Translation* filmarengatik.



Emakumeak sari banaketan aurretik izan ohi dira benetako protagonistak. Alfonbra gorrian maniki hutsen rola jokatzeko dute.

Azken nominatua eta zuzendari onenaren saria jaso duen emakume bakarra Kathryn Bigelow da; *The Hurt Locker* pelikulari esker jaso zuen oscarra 2010ean eta, filma zuzentzeaz gain, ekoizle lanetan ere aritu zen. Urte horietan guztietan zazpi izan dira ekoizpen onenaren saria jaso duten emakumeak, baina zazpiak koprodukzioan, hau da, saria gizonezko lankideekin partekatuta.

Iaz, Oscarren 85. edizioan, 140 gizonezko nominatu zituzten 19 kategoriatan. Emakume nominatuak, aldiz, 35 izan ziren. Eta kontuan hartu behar da horietatik 10 ezinbestean izendatu zituztela saridungai, emakumezko aktore nagusi onenari eta bigarren mailako emakumezko aktore onenari dagozkien ataletan.

Emakumezko aktoreentzat adin jakin batek aurrera rolik ez dagoela dioen topikoa hausten ari den itxaropena piztuko zaio inori aurtengo sarietan nominatuak eta sarituak izan direnen zerrendari erreparatuta. Hor daude



KUADRILLA ARTEKOA
HERRIKOIA DA,
edozeinek har dezake parte

www.bertsozale.com/araba

ARABAKO BERTSO KUADRILLA ARTEKOA
 otsailak 18-apirilak 5

argia



Meryl Streep (64 urte), Emma Thompson (54), Sandra Bullock (49), Julia Roberts (46) edo Cate Blanchett (44). Baina, batetik, aktore horien argazkiei erreparatuta, batez beste 20 bat urte gutxiago dituztela ematen du. Eta, bestetik, berriro ere, datuak subjektibotasunari gailentzen zaizkio: 2000. urtetik aurrera oscarra jaso duten gizonetzko aktoreen batez besteko adina 44 urtekoa da; emakumeena, 36 urtekoa. Aldea are nabarmenagoa da gehien ordaindutako aktoreen zerrenda aintzat hartuz gero: diru gehien irabazten duten 10 gizonetako batez besteko adina 46,5 urtekoa da; emakumeena, 34,8 urtekoa.

Azaleko protagonismoa

Aurtengo Hollywoodeko zinema sari banaketa ekitaldi nagusietan, industria kontserbatzaileak atarian aipatutako berniz geruza ematen asmatu du, datuek erakusten duten errealitate gordinaren gainetik. Urrezko Globoak Tina Feyk eta Amy Poehlerrek aurkeztu

Kathryn Bigelow
zine-zuzendaria
(goian) eta **Angelina**
Jolie aktorea
(behean).

dituzte. Oscarrak aurkezteko, berriz, Ellen Degeneres aukeratu dute bigarrenez, iazko ekitaldian Seth McFarlane aurkezleak botatako txiste misoginoak estali nahian-edo. Hiruak emakumeak, eta hiruak 40 urtez gorakoak. Degeneres lesbiana da gainera eta, hala, bi kupo harri bakarraz bota ditzakete (lastima aurkezle ezagunaren ezaugarri kaukasiarrak oso nabarmenak direla).

Baina emakumeak sari banaketan aurretik izan ohi dira benetako protagonista. Alfonbra gorrian maniki hutsen rola jokatzen dute. Duela aste batzuk, AEBetako aktoreen sindikatuak banatzen dituen SAG sarien aurretik, azken urtean sari gehien jaso dituen Cate Blanchett elkarrizketatu zuten alfonbra gorrian. Gainerako emakumezko aktoreekin egin bezala, kamera lotsagabea haren gorputzaren plano labur mantsoa egiten hasi zen oinetatik gora, inoizko antzerki eta zinema aktore bikainenetakoak elkarrizketatzailearen galdera hutsalei erantzuten zien bitartean: “Nork diseinatu du soinekoa? Norenak dira zapatak? Eta osagarriak?”. Orduan, aktore australiarra kameraren ibilbideaz jabetu eta makurtu egin zen, gailuaren begiarekin erdibidean topo eginenez. “Gizonei gauza bera egiten al diezue?”, galdetu zuen. Elkarrizketatzaileak irri urduriz erantzun zion.

New Yorkeko Film Akademiaren arabera, “datuak aztertu ondoren, argi dago Hollywood trabatuta dagoela genero kontuetan”. Egungo film industria komertzial nagusian baikor izateko motiborik ez dagoenez, Hollywoodek kanpo eta etorkizunean dute itxaropena. Batetik, 2013ko Sundanceko Zine Jaialdian aurkeztu ziren lanen zuzendarien zerrenda oasia da gizonen basamortuan: lehenengoz emakumezko zuzendarien portzentajeak %50eko muga gainditu du. Baina jaialdi horretan AEBetako film independenteak eta atzerriko lanak eman ohi dituzte, gero zabalkunde eskasa izaten dutenak. Bestetik, etorkizunean industria horretan zer esan handia eman dezaketen emakumeak aipatzen dira txostenean: Lake Bell, *In a World* filmeko aktore, ekoizle, zuzendari eta gidoigilea; Dee Rees, *Pariah* filmeko gidoigile eta zuzendaria; Sarah Polley, *Go* filmeko aktorea eta *Stories We Tell* filmeko gidoigile eta zuzendaria; Jill Soloway, *Six Feet Under* telesail bikainaren ekoizle eta gidoigilea... ■



Ia kasualitatez, antzerkiak espazioa hartuko dio egunerokotasunari

Martxoaren 6tik 15era bitarteko bi asteburuetan, Gasteizko Gorbeia-Zaldiaran merkatua espazio eszeniko bihurtuko da, Pez Limbo eta Factoria de Fuegos antzerki taldeen ekimenari esker. Bigarren edizioa du aurtengoa, eta 17 konpainia bilduko dituzte, antzerkia, dantza, txotxongiloak, performancea eta klowna eskaintzeko. Ezohiko lau eszenatoki, sei egunez, egunerokoak eta kulturak bat egin dezaten.

| MYRIAM GARZIA |

“ARGIEK ez dute distirarik, arrain usaina nabarmena da, txandaren zain egon behar izaten da...”, dio azokaz Edu Hernandok, Pez Limbo antzerki taldeko kideak. Leku goibela da, beraz, baina gertukoa, egunerokoari lotua.

2011n egin zuten 150 gr. ekimenaren lehen edizioa, Eusko Jaurlaritzako Sormen Lantegiak programak diruz lagunduta. Orduko hartan, lau eszenatoki paratu zituzten merkatu nagusian, eta hamar konpainia aritu ziren hara bildutako 800 lagun ingururentzat. “Edizio hartan, bestela sekula argia ikusiko ez luketen antzezlanak kaleratu genituen, gerora hainbat plaza ezagutu eta saria jaso dutenak”, jarraitu du Hernandok. Aurtengoa ia bikoiztu egin da eskaintza, Gasteizko antzerkizaleen kopurua gora baitoa.

Ekimen honen atzean dagoen bigarren taldea, Factoria de Fuegos, atzerrian jardun eta gero, 2009an itzuli zen Arabara. Egun sorkuntza eta zabalkunderako plataforma da antzezle berrien mesedean. Pez Limbok, berriz, antzerkia errepresentatzeko ezohiko espazioak bilatzea du xede. Bitxi egiten diren zenbait toki hartu dituzte orain arte eszenatatzat: kartzelak, harategiak, eskolak, museoak...

Antzoki hutsak, kale beteak

Antzokia antzerkirako leku aproposena izan baliteke ere, hara joatea ez da beti erraza izaten. “Elistismo kutsua dario gainera, baina jarrera hori antzerkiaren izaeratik erabat urrun dago. Publiko gaztea, adibidez, erabat uxatzen du”, nabarmendu du Hernandok, “Antzerkia edozein espaziotarako gauza izatea da gure proposamena”.

Aurtengo 150gr. jaialdian parte hartuko duten antzezlanak laburrak dira orobat, ordu



Espinazo o callos antzezlanak Gasteizko azokan, 2011ko 150 gr. jaialdian.

erdikoak gehienez. Aurreko edizioan ondorioztatu zuten, jendeak gustuko ditu lan motzak, baita espazio hau ere. “Bestalde, apaingarri eta artifiziorik gabekoak dira obrak, errepresentazio huts eta biluziak, ikuslea bi metrora izaki, zaila baita ezer ezkutatzea”, zehaztu digu Hernandok. Zortzi lan eskainiko dira euskara hutsez, “nahiz eta badakigun kopuru hori egokia izatetik urrun dagoela”. Etorkizunean kopurua hobetzeko asmoan dira.

Gasteizen, arte eszenikoetan, zerbait gertatzen ari dela uste du Pez Limbok kideak: “panorama interesgarria dugu. Sleepwalk Collective, Kolektibo Monstrenko, Baratza aretokoek edo guk geuk, Pez Limbo, urteak daramatzagu gogotik lanean, publiko zabala eta anitza egon dadin, eta emaitza agerikoa da”. ■





Helduen Literatura

Bizkartzainaren lehentasunak
Iñaki Irasizabal

Pamiela, 2014

Hitzen ondoeza

GARAI ZEHATZ bateko gertakarien inguruko berrietan oinarrituz osatutako fikzio gisa definitu du idazleak bere azken liburua: *Bizkartzainaren lehentasunak*. 50 urtez Euskal gizartea astindu duen konfliktu armatua gaitzat harturik, ETAk 2011ko urrian su etena deklaratu aurreko hilabetetan txertatu du, eleberri beltzaren itxura ematen dion trama batean.

Bake prozesurako lehenbiziko aurrerapausuak emanak direla, poliziak talde armatua infiltratu bat sartu zuela zurrumurrua zabaldu da. Satorraren erailketa posibleak arriskuan jartzen du bakerako bide oro eta, beraz, Martín Goena, iraganean militante armatua izandakoa, kontratatuko dute haren bizkartzain gisa. Gauzak konplikatzeko hasiko dira, Aratzi, Bilduko zinegotzia eta Martinen alaba, erailketetan parte hartzea leporatu nahi diotenean.


Armak uzteko erabaki ofiziala hartu baino urte batzuk lehenago, taldeak ez zituen garai loratuak bizi izan eta, agian horregatik, barne banaketaz zein koordinazio ezaz mintzatu zen. Interrogazio ugari ireki ziren. Nola azaldu hainbat atentaturen saiakera zapuztuak? Taldekide zein kolaboratzaileen desagerpena? Edo talde barruko zenbaitek, muturreko egoerak direla eta, egin behar izandako borondatezko entregak? Gertakari berezi bezain arraroen aurrean ekin zitzaion polizia infiltratu baten (edo gehiagoren) posibilitatean pentsatzeari. Nori ez zaio inoiz hura burutik pasa?

Premisa posible horretatik abiatuz eraiki du Iñaki Irasizabalek bere fikzioa. Errealitatearen isla izan nahi ez duen arren, konfliktu politiko bat tranpolin hartuta, zenbait kontzepturen edukian urperatu gaitezen proposatzen duela ematen du. Bakea, justizia, traizioa dira liburu honen konstantea, pertsonaia guztien ahotan topatzen ditugun hitz klabeak, eta baita tramaren bizkarrezurra. Denek izango dute bakea helburu, pertsonaiek justizia eskatuko dute baina, azken finean, denak gara traidoreak besteen begietan. Zergatik baina?

Jabetu ez arren, egunero hamaika mila aldiz aipatzen diren esanahi higituzko hitzak baino ez ditugu hauek, eta praktikan jartzen direnean ere, nahi ahala egiten eta desegiten dira dirua tartean bada. Balio unibertsaleko definizioa bazterturik gelditu da eta merkatu sistemaren saleroste beharrari erantzuten diote orain: bakea zein preziotan? Justizia norentzat eta zeren truke?

Printzipio ideologiko batzuen menpe elkarri tiroka ari garen bitartean, gure bizitzari prezioa jarri diotenak espektakuluari barrez begira daude. ■

Saioa Ruiz Gonzalez



Euskal literaturaren ikusezintasuna.
Hainbaten artean

Hegats, 51. zenbakia.
Euskal Idazleen Elkartea, 2013

Euskal literaturaren ikusezintasunaz

ERREALITATE horren zergatiak aletzen saiatu dira Ander Iturriotz, Inma Errea, Josu Jimenez Maia, Ixabel Etxeberria, Gotzon Barandiaran Arteaga eta Anjel Lertxundi—azken honek Iratxe Etxebeste mintzalagun duela—, *Hegats* aldizkari 51. zenbakian.

Nork bere ertzetik heldu dio gaiari, zenbaitek lurraldetasunaren ikuspegitik, osotasunari erreparatuta nahiz Nafarroa edo Iparralde esparrutzat hartuta, kasura; hainbatek bere larruan bizi izan duenetik, gehienek hizkuntzaren gutxiespenak sortzen duen minetik, bazterkeriak duen oinarri politikotik, musikaren eta literaturaren arteko uztardurak eman lezakeenetik...

Ehun orrialde eskaseko liburuxka honek ez dakar konpendio bateraturik, baina bai ondo kontuan hartzeko ideia hausnartuak, zezenari adarretatik heltzeko.

Biziki interesgarriak Ander Iturriotzek planteatzen dituen galderak; (nazio, kultur edo literatur) marka kontzeptuaren inguruan azaleratu diren gogoetak edota Ixabel Etxeberriari darion baikortasuna. Gogoan hartzekoak, halaber, Inma Erreak generoaren optikatik egin duen ispilutzea. ■

Garbine Ubeda
Goikoetxea



Bizet-en *Carmen*.

Bakarlariak: Giuseppina Piunti (mezzoa), Aquiles Machado (tenorea), Carlos Álvarez (baritonoa), Maite Alberola (sopranoa).

Bilboko Orkestra Sinfonikoa. Zuzendaria: Jean Yves Ossonce.

Bilboko Operaren Abesbatza. Zuzendaria: Boris Dujin.

Bilboko Operaren Abesbatza. Eszena zuzendaria: Calixto Bieito.

Lekua: Euskalduna Jauregia. **Data:** Otsailaren 15a.

Carmen, edo emakume euskalduna

ALDI HONETAN, OLBEk titulu ezagunenetako bat ekarri digu, ezin erakargarriagoa, ezin dramatiko eta pasionalagoa: *Carmen*. Izenburua entzun eta segituan agertzen dira gure imajinazioan emakume ijito andaluziarra, “toreadore”-a eta abar, baina, nahiz eta Bizet-en lana Sevillan kokatzen den, konpositoreak oinarri bezala hartu zuen nobela, Prosper Merimée-ren *Carmen*-en akzioa Nafarroan gertatzen da. Carmen Etxalarkoa zen eta Don José Lizarrabengoa, Elizondokoa. Beraz, Carmen-en arketipoa –emakume askea, gogorra, nahi duena momentu bakotzean egiten duena, kontsekuentea, heriotza duintasunez onartzen duena– ez al da emakume euskaldunarena izango? Beharbada, bai. Edo, gutxienez, gustatuko litzaiguke, ezta?

Baina, goazen harira. OLBEk ekarritako produkzioa, Calixto Bieito famatuarena, gustatu zitzaigun. Bertsio hau, 1999an estreinatua, sona handikoa izan zen momentu hartan, oso apurtzailea kontsideratu zelako. Alde batetik, XIX. mendean kokatu ordez, XX. mendeko 60ko hamarkadan kokatzen da, legionarioen kuartel baten inguruan. Bestetik, aktuazioetan alde sentsuala edo ia sexuala azpimarratzen da; hori bai, muga gainditu gabe. Agian orain dela hamabost urte bai, ausarta izan zitekeen. Gaurko ikuspuntutik, batere ez. Ez da ohiko bertsioa, baina berrikuntza neurtuak ditu, mantentzen du istorioaren esentzia eta estetikoki ederra da, dudarik gabe.

Musikalki, azpimarratu egin behar dugu Aquiles Machado-ren interpretazioa. Ahots argitsua du Machadok, boteretsua baina gozoa, ñabarduraz betea. Benetako gozamina izan zen bera entzutea. Horrez gain, ondo sartu zen bere paperean, sinesgarritasunez. Oso ondo Maite Alberola soprano valentziarra ere. Mikaela taxuduna egin zuen. Agudo zoragarriak ditu eta oso ondo menderatzen ditu bere baliabide boka-lak. Carlos Álvarez baritono malagarra, beti bezala,



oso eraginkorra suertatu zen, eta, hasiera batean oso eroso sentitu ez bagenuen ere, obra aurrera joan ahala demostratu zuen bere gaitasun bokal eta interpretatiboa. Eta Carmen? Giuseppina Piunti mezzo italiarra oso-oso ondo mugitu zen taula gainean, fisikoki ematen du denok buruan dugun Carmen baten irudia, beltzarana, ederra... Eta bokalki ondo aritu zen, besterik gabe. Ñabardurak falta ziren bere ahotsean, nahiko planoa izan baitzen bere interpretazioa, ikuspuntu musikaletik. Halere, orokorrean, figura ona egin zuen. Azkenik, gure izarrek, Itxaro Mentxaka mezzook eta Elena Sancho sopranoak, interpretazio azpimarragarriak egin zituzten, oso landuak. Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Jean Yves Ossonce maisuaren batutapean, akatsik gabe. Eta bai Bilboko Operaren Abesbatza, bai Bilboko Koral Elkartearen Kontserbatorioko Abesbatza, txalogarriak, abesteaz gain dantzatu eta mugitu egin behar izan zutelako, eta dena ongi.

Benetan ondo pasa genuen. ■

**Montserrat
Auzmendi**



TXOKOLA- TEZKO GOZOKI	↓	PERTSONAIA- REN ABIZENA	↓	ARRAIN MOTA	 DANI BLANCO	KATUAREN OIHUA	↓	ELIKATZEN	↓	LARRUAZA- LEKO GOGORGUNE	↓
BORONDATEZ		LANBIDE ATZIZKIA	↓			NIREGANA		GIZAKI AR	↓		TOKIREN BATERA
ZEIN LEKUTARA	→					PERTSONAIA- REN IZENA	→				
TELEBISTA	↓					TOKI	↓				
	↓	SILABA HINDUA	→		HURBIL	↓	ALTUERA	→			
		ZUHAIKKA IZENA, AINARRA			... EGIN, HOZKATU		LURPEKO GARRAIO- BIDEA	↓			
OTSOKO	→							EGOKIAK	→		
GERNUA	↓							ZUBEROAKO HERRIXKA	↓		
	↓			HAGOAN, OREKAZ	→					HERRI HIZKERAN, BADA	→
				HOTSIK EGIN GABE	↓					IRAUPEN	↓
ESKERRIK ASKO	HEGAZTI ZANGALUZE	→			TURKIAKO HERRITAR	→					
	UR IZOZTUTA	↓			PERTSO- NAIAREN JAIOTERRIA	↓					
							HERRI HANDI	→			BURUTIK JOTA
	↓						TINAKO, TRESKA	↓			
KOILARA HANDI	→				LETRA GREKOA	→			SARRERA	→	
TOKI HORRETAN					BIHI, GARAU	↓			JABETASUN ATZIZKIA	↓	
			IRRISTATU, LERRATU	→							ROENTGEN RUBIDIOA
			EZ EME	↓							
ZIGORTZEKO MAKILA	→					EZ POSITIBO EZ NEGATIBO	→				
PETRAL- KERIA	↓					IODOA	↓				
								EMAKU- MEZKO BATENTZAT, SENIDE ARRA	→		

A large cruise ship, likely a Costa Concordia, is shown sailing on the ocean. The ship is white with a prominent orange funnel. It has multiple decks with many windows and balconies. The ship is moving towards the right of the frame, leaving a wake in the blue water. The sky is clear and blue.

A portrait of a middle-aged man with dark hair, smiling slightly, wearing a dark button-down shirt. The photo is tilted and has a white border.

	B	G		M	J	Z
G	O	Z	N	I	A	N
N	O	R	A	I	T	O
T	B	O	H	L	E	R
O	S	K	U	O	N	A
P	X	A	R	E	K	B
	I	B	S	T	R	I
M	I	L	S	H	I	R
Z	A	L	I	T	A	T
H	O	R	L	A	I	N
O	Z	A	R	E	I	A

Erle batetik dator mundua

LORE FESTA hemen da, furfurian. Neguaren hasieran loratu ezinik ibili zirenak, denak batera zabaldu dira otsail argian, eta behin abiatuta, martxoan ez da etengo, eguraldi on bidez. Irekiko diren loreek haizea edo intsektuak beharko dituzte, ernalduta eta fruiturantzko bideari ekiteko. Ikusgarriak, nabarmenak, landarearen kanpoko aldean, erraz antzemateko moduan dauden loreak intsektuei deika ari dira. Haizea behar duten loreak, berriz, ia ikusi ere ez dira egiten. Nork ezagutzen du haritzaren lorea? Edo intxaurrondorena? Eta badute, noski badutela lorea; bestela, ez genuke ez ezkurrik ez intxaurrik izango.

Den-denaren hasiera lore bat da. Jakina, bada lorerik gabeko mundurik. Baina guk bizi dugun mundu hau ez litzateke lorerik gabe. Gure egunerokoa gauzatzen duen guztia lore batetik dator; izan ere, zer ez dator landare batetik? Arnasten dugun oxigenoa, edaten dugun ura, petrolioak, jakiak, edariak, arropak, plastikoa, zura, burdina egiten duen sua... Lorearen aieka estetiko soila dugu gogoan, gehienetan. Fruituaren

eta haziaren ataria izatea da, ordea, lorearen arrazoi nagusia. Fruituek zabaltzen lagunduko dituzten hazi horietatik sortuko dira geroko landare ia denak.

Nekazaritza industrialetan, hazitiki sortzen ez diren landareak ugartitzen ari dira. Nola sortzen da, bada, landarea hazitik ez bada? Aldaxkatik edo txertotik. Aldaxka landare baten zati bat da, eta lurrean sartu eta itsastean, horra, landare berria. Txertoa, berriz, landare zatia beste landare baten gainean jartzea da. Bietan, sortuko ditugun landareak zatia kendu genion landare amaren klonak izango dira, amaren berdin-berdinak, kopiak.

Hazitik sortutakoak beti izango du desberdintasunen bat, eta naturak hori nahi du, desberdinak. Etorkizuneko balizko edozein baldintzatan, aurrera egiteko gai izango den baten bat izan dadin.



SEVERNJC

Eskerrak haizeari eta erleei. Euskaldunon kulturak izugarri zor dio sagardoari. Eta loratutako sagastirik gabe sagardorik ez. Eta, erlerik gabe, sagarrik ez. Duela lau-bost mende Euskal Herriko isuri atlantiko lur sail izugarriak sagasti ziren. Milioika sagardo litro behar ziren. Horrela uler daiteke erlea etxean babestea. Etxeko teilatupean izatea, eta etxekotzat jotzea, sendikoa. Erlerik gabe, ez lukete zer edan. Lorea, erlea, gu. ■



Ezpaletik

ASKO GUSTATU ZAIT Orioko errio aldameneko lorategietan zuhaixken azpiak txukun, belarrik gabe mantentzeko jarri duten materiala. Txiki-txiki egindako ezpalak dira. Babes handia ematen dio horrek landareari. Garbi eusten dio landare multzoak, bestela maiz-maiz jorratu egin beharko litzateke azpia. Bestetik, egur hondakina pixkanaka usteldu egingo da eta horrek lurra ongarriztuko du. Arazotxo bat besterik ez diot antzematen: deskuiduan hezetasun handiko sasoiak etorriko balira, landarearen ipurdiaren kontraraino dagoenez, gaitzak sartu eta usteltzeko arriskua.

Dena dela, asko gustatu zait, bai. ■



JAKOBA ERREKONDO

Pankrea artifiziala intsulinaren ordeztu

EUROPAN milioi batetik gora pertsonak hartu behar dute intsulina egunero. Pertsona horien pankreak ez du sortzen gorputzeko azukrea disolbatzeko adina intsulina; ondorioz, inekzio bidez hartu behar dute.

Oraingoz ez dago alternatibarik intsulina gorputzeratzeko inekzioentzat, pankreako zelulen transplantea ez bada, baina bide hori oso kasu gutxitan erabiltzen da, konplikazio handiak eragiten baititu. Duela gutxi, baina, gaixoentzat itxaropen bide bat zabaldu da, Frantziako CTTM zentro teknologikoko Hervé Pichonek azaldu duenez: pankrea artifiziala.

Gailua hamar zentimetroko aldeak dituen poltsa karratua da, barruan zelula biziak dituen. Gaixoaren sabelean txertatzen da eta haren bizitza osoan behar den intsulina sor dezake; horrela, inekzioaren morrontzatik askatuko litzateke inplantea jaso duen pertsona. Oraingoz animaliekin egin dituzte probak, eta emaitza oso ona izan da. 2015erako iragarri dituzte gizakiekin lehenbiziko saiakerak. ■



Milioi bat europarrek baino gehiagok egunero inekjatu behar dute intsulina.



Auto baten abiadura marka berria



HENNESSEY VENOM GT izeneko automobila (argazkian) abiadura marka berria ezarri zuen otsailaren 14an, NASAREN Kennedy Space Center egoitza.

Bi pertsonarentzako automobilen kategorian ezarri da errekorra: 435,31 kilometro orduko. Aipatu bezala, NASAREN egoitza bat erabili da horretarako: espazio-ontziak lurreratzeko erabiltzen den

bost kilometroko errepidea hautatu dute proba egiteko. Erraz gainditu dituzte aurreko marka guztiak. Bai Hennessey Venomen antzeko automobilen —orduko 431 kilometrokoa baitzen lehen—, baita Bat Formulakoena ere, hori orduko 397,48 kilometrokoa baita.

Abiadurarenaz gain, beste marka bat ere hautsi du autoak, azelerazioarena. 0tik 300eko abiadura lortzeko 13,63 segundo baino ez ditu behar izan. ■



Artikoa: 25 urteko galera minutu batean

Zientziaren Garapenerako AEBetako Elkarteak bideo deigarri bat erakutsi du aurtengo batzarrean. Artikoa 25 urteko epean izan duen bilakaeraren irudiak biltzen ditu bideoak, minutu bakarrean. Satellite bidezko irudiek garbi erakusten dute Artikoko izotza gero eta gazteagoa dela, eta azalera galtzen ari dela, urtetik urtera gero eta zailagoa baita udan galdutakoa berreskuratzea neguan. Kalkulatu dutenez, gutxienez lau urte dituen izotzak estalitako azalera %26tik %7ra igaro da 25 urteotan.

ttiki.com/61643

(Euskaraz)

Lurraren barnean itsasoan baino ur gehiago

Erresuma Batuko ikerlari talde batek lur azpian, 100 kilometroko sakoneran, gertatzen diren lurrikarak aztertuta, eta ondorioztatu du itsaso guztietan baino ur kantitate handiagoa dagoela bertan.

ttiki.com/61644

(Gaztelaniaz)

Meteoritoak ilargian

Ilargiaren gainazala meteorito askok jotzen du, baina orain arte detektatu den talkarik handiena 2013ko irailaren 11n gertatu zen. Eztanda hamabost tona TNTk eragingo luketaren baliokidea izan zen.

ttiki.com/61645

(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Errege godoen zerrenda beltza

PRADO MUSEOA



Errege bisigodoen zerrenda beltzeko kideetako bi: Agila I.a eta Witeriko.

BARCINO (EGUNGO BARTZELONA) 415.EKO UDA. Ataulfo erregea Dubius esklaboak puñala sartuta hil zen, ustez, txikia izateagatik barre egin ziolako. Aitzakiaren atzean, jakina, boterea lortzeko konspirazioa zegoen. Horrenbestez, Iberiar penintsulako lehen errege bisigodoak agintari godoen zerrenda beltza ere inauguratu zuen.

Handik astebetera Ataulforen oinordeko Sigeriko ere hil egin zuten. Zazpi eguneko erregealdia nahikoa izan zuen Ataulforen sei seme-alabak hiltzeko.

453an Turismundo erregea haren anaia Teodoriko II.aren enkarguz hil zuten, ohean gaixorik zegoela estrangulatuta. Gerora, Teodoriko errege zela, haren oinordeko Eurikok hilko zuen.

Gune sakratuak ere ez zituzten errespetatzen erregeen hiltzaileek eta Amalariko elizan hil zuten 531. urtean. Haren ondorengo Theudis soldadu batek sastakatuta hil zen. 554an Agila I.ak ere hainbat sastakada jaso zituen bularrean, eta odolus-tuta hil zen.

603. urtean Witerikok eskua moztu zion Liuva II.a erregeari. Esku bakarra zutenek ez zuten errege izaterik, baina badaezpada Witerikok ezpataz akabatu zuen. Zazpi urte geroago Witeriko bera hil zuten ezpataz, eta haren gorpua Toledoko kaleetan herrestan eraman.

Sisebuto erregea hiltzeko beste klasiko bat erabili zuten 621. urtean: pozoia.

Wamba ere pozoiez hiltzen saiatu omen ziren 680. urtean. Erregeari espartinaz egindako edabea eman zioten. Baina pozoia, dosi hilgarrietan hartzen ez bada, lo-eragingarria da. Zenbaiten ustez konplotaren asmoa ez zen monarka hiltzea, eta egia esan, lo-kuluxka nahikoa izan zuten aurkariek Wamba tronutik botatzeko. Monje-jantzia jarri zioten eta ilea larru-arras moztu. Lege bisigodoen arabera, erlijiosoek ezin zuten errege izan eta ile motza laido larria zen godoentzat.

Koroa eta duintasuna galdu zituen, baina behintzat beste zortzi urtez bizi izan zen. ■




Arrastoak

Musuen kontrako kanpaina

MUSU EMATEA “jardute basati eta kaltegarria da, eta abolitu egin behar da”, bota zuen Women’s Christian Temperance Union mugimenduko presidente Anna Hatfieldek 1901ean, New Yorken hitzaldi bat ematen ari zela.

Doktoreak –Hatfield medikua baitzen– bazekien zenbait musu emateko ohitura erabat ezabatzea ia ezinezkoa izango zela; gurasoen eta seme-alaben artekoak, esaterako. Nahiz eta musu garbi horietan listu trukerik ez zegoen, Hatfieldek profilaxia gomendatzen zuen: “Aurrez ahoa arreta handiz garbitu behar da antiseptiko indartsuren bat erabiliz”.

Gainera, elkarte kristauko kideak musuka aritzen ziren bikote gazteen ehizan ibiltzeko bildu ohi ziren. Baina bistakoa da Hatfielden kanpainak ez zuela arrakastarik izan. ■



Anna Hatfieldek musuen kontrako kanpaina abiatu zuen urte berean, 1901ean, Gustav Klimtek *Musua* lan ezaguna margotu zuen.

«Autonomia desegin eta gestora bat izenda dezakete»

Hernanin Natza elkarteak antolatuta goizean emandako hitzaldiaren ondoren egin genuen elkarrizketa. Sorturen eskutik, Etxarri Aranatz eta Elgoibarren ere hitzaldiak izan zituen. David Fernandez (Bartzelona, 1974) gelditu gabe dabil atzera aurrera. Udalei begira bizi da Herritar Batasunaren Kandidatura (CUP), baina 2012ko Kataluniako hauteskunde autonomikoetan 120.000 boto eta hiru parlamentari lortu zituen, bera bat. Liderra ez, dio tinko, bozeramaile da.

| XABIER LETONA |

Argazkiak: Dani Blanco

Azaroaren 9an zer gertatuko da, erreferenduma edo plebiszitu izaera izango duten hauteskunde aurreratuak?

Ez dago garbi, baina kontsulta bat bai egongo da. Kontsulta hori debekatua izango da eta ez dago garbi nola kudeatuko den debeku hori. Batzuen ustez, debekuari ez zaio erantzun behar berehalakoan hauteskundeak deituta eta haren kudeaketa luzeagoa egin behar da. ERCK, adibidez, hori defenditzen du eta, azken baliabide gisa, CUPEk ere bai. Gure ustez, gure legitimitateari men egin eta erreferenduma egin behar ko litzateke. Guk zera galdetzen dugu: zer egin behar da kontsulta ezinbestez egin dadin?

Zer egin behar da?

Ez dugu erantzun borobilik, baina ordezeko mekanismo bat bideratu behar ko litzateke, seguruenik hauteskundeak aurreratu, baina denborak oso ondo kudeatuz. Hauteskunde horien izaerak konstituziogilea behar luke eta, beraz, Legebiltzar berriaren lehenengo urratsa independentzia aldarrikatzea litzateke. Ez du esan nahi hurrengo egunean estatu independente bat izango garenik, baina fase baten azken urratsa litzateke. Horrekin Europar Batasuna estatu berri hori onartzera edo ez behartu-

ko genuke. Hautatu behar ko da katalan zilegitasun demokratikoaren artean eta espainiar legalitate konstituzionalaren artean.

Entzuten da baita ere, plebiszitu hauteskunde horien ondoren, gobernu berriak berriz beste erreferendum bat deitu behar ko lukeela, zilegitasun handiagoa irabazteko.

Guretzat erreferenduma bai ala bai egin behar da, ez da negoziagarria, beste kontu bat da noiz, lehenago edo geroago. Horrek egiten du zilegi estatu berria. Kasu horretan, gobernuak edo alderdiek ezin dute gizartea ordezkatu.

“Hauteskunde horien izaerak konstituziogilea behar luke eta, beraz, Legebiltzarren lehenengo urratsa independentzia aldarrikatzea litzateke”

Azaroak 10. Independentziaren aldeko indarrek gehiengoz irabazi duzue, soberanistek gutxienez jotzen duzuen %55etik gorako emaitzarekin.

CUP prest legoke gobernu bateratu baten parte hartzeko?

Planteatu zaigu halakorik eta bi konturekin erantzuten dugu. Bat, inor ez dadila kezkatu independentziaz hori CUPen esku badago. Bi, egoera politikoa oso gaitza eta gogorra izango da eta ezin dugu ezer baztertu.

Tankeena baino gerra psikologiko handia izango da. Zera dio askok: “Lehen akats sorta egiten duenak” galdu egingo du. Zeintzuk dira mugimendu soberanistak egin behar ez dituen akats horiek?

Prozesua ikuspegi erabat zibil eta demokratikoetan oinarritua dago, eta hori da gure gotorlekua. Probokazio ugari eta era askotakoak izango dira eta pazientzia handia izan behar ko dugu horietan ez erortzeko. Gure aurreikuspenetan prozesu motza izango da, baina aurreikusitakoa baino luzeagoa, hori seguru. Horrez gain, prozesuak aurrera egingo duen bermerik handiena herritarren parte-hartzea da.

Zera diozu sarri: “Jar gaitzen egotarik txarrean eta horrela jakingo dugu nola aurre egin hari”. Zein izan liteke egoera oker hori?



“Kataluniako ezker zaharrak gobernatu zuen eta 2007tik 2011ra ez zuen egin krisiaren kudeaketa desberdinik, aitzitik, finantza merkatuen konplize izan zen”.

Ikuspegi sozialetik begiratuta, higitze gerra luzea jasatearena. Kontuan hartuta gizartearen zati handi bat oso egoera ekonomiko eta sozial estuan dagoela, hori ahulgu-ne oso garrantzitsua da. Estatu espainiarraren gerra zikina nagusiki nazioarteko esparruan eta finantza-ekonomiaren arloan izango da. Generalitatea porrotean da, 60.000 milioi euroko zorra du eta batzuk iradokitzen ari dira autonomia bertan behera uztea, legea aldatzea gure agintariak auziperatzeko...

Egoerarik okerreana, hala ere, ezer ez gertatzea da.

Posible ikusten duzue autonomia bertan bera uztearen aukera. Esaten da hori ez dela erraza, administrazioa ezin dela bat-batean geratu...

Gipuzkoako Lizartza herrian egin zuten bezala egin dezakete, autonomia desegin eta gestora bat izendatu. 2002an Alderdi Politikoen Legea egitean sinesgaitza zirudien, baina gertatu zen. “Ezinezkoa izaten da... gertatu arte”, zioen Mandelak, eta

horrek balio du onerako eta txarre-rako. PPK Espainian egiten duen kanpainarekin, batzuetan iruditzen zait Katalunia galdutzat ematen dutela.

Eztabaida handia izan zenuten Kataluniako Legebiltzarrean parte hartze-ko. Urte eta erdi daramazu parlamen-tario gisa. Zer esaten dizu orain buruak?

Gure kontraesan guztiekin, uste dut ez ginela erratu. Guk bagene-kien Legebiltzarrak eraginkortasun mugatua duela: merkatuek ekono-mia bahitua dute, demokrazia degradatzen ari da, ustelkeria... Legebiltzarraren egoera pentsa-tzen genuena baino okerragoa da. Horrez gain, CUPen proiektua Kataluniaren berreraikuntza nazio-nal eta soziala da eta horretarako tresna garrantzitsuen udalgintza da. Baina zalantzak ere asko dira. Ez dugu gustuko bizi dugun gizar-te hau eta zerbait berria egiteko laborategian gaude. Beste eredu baterako trantsizioan demokrazia molde desberdinak behar dira: herrietan demokrazia zuzena eta demokrazia parte-hartzailearen garapena, eta herrialde mailan demokrazia ordezkatzaila. Euro-pan demokraziaren kudeaketak hondoan jo du eta aipatu hiru demokrazia molde horien uztar-tzeak zulotik ateratzeko beta eman dezake.

CUPen ez duzue agintaldirik errepika-tzen. Beraz, heldu instituziora, kosta kolokatzen, lau urtez ikasi eta gero alde egin. Ez ote da eraginkorragoa bi agintaldi?

Horrek badu bere logika eta segu-ruenik suebaki baten gisakoa da. Botereari diogun beldurretik edo arbuizatetik dator.

Boterea hartzea da helburua, ezta?

Bai, jakina. José Emilio Pacheko mexikarrak zera zioen bere esa-molde batean: “Hogei urte geni-tuenean borrokatutako hori guztia gara dagoeneko”. Botereak galbi-deratzeko duen indarrari egiten dio erreferentzia. Beldurra zaio bote-reari, baina garrantzitsuen da botere hori banatzeko eta kudea-tzeko beste modu bat asmatzea.



Europako hauteskundeak direla eta, martxoaren 9an erabakiko dute ea EH Bildu eta BNGrekin koalizioan doazen.

CUP parlamentura aurkezten zen lehen aldia zen eta gure hautagaien zat hiru neurri hartu ziren: legealdi bakarra, kargu instituzional bakarra eta 1.400 euroko soldata hileko. Orduko testuinguruaren hiru arrazoik hobeto ulertarazten dituzte erabakiak: bat, politikarien praktika txarrekin eragindako politikaren degradazio sakonetik genduz; bi, beste kultura politiko batetik genduz, alderdi klasikoaren hierarkia politikoetatik urrutitu dagoena; eta hiru, asko ikasten da halako tokietan, baina CUPn ikasketa prozesu horiek partekatu egiten ditugu eta guk ikasitakotik ez da ezer galdu-

“Estatu espainiarraren gerra zikina nagusiki nazioarteko esparruan eta finantza-ekonomiaren arloan izango da”

ko. Gure hauteskunde programan legealdi baterako esan genuen eta hala izan behar du. Hala ere, CUPen bertan batzuk hasi dira hori zalantzan jartzen, ulertzen delako erabaki hori botereari genion beldurretik hartu zela. Mugimendu sozialetan gauza asko lortu dira lider barik eta guk hori aldarrikatzen dugu. Zein aurpegi du intsumisioak? Eta hainbeste gauza lortu dituen mugimendu feministak?

Baina orain CUPek badu aurpegi bat edo gehiago, zurea behintzat oso ezaguna da. Ordaina da.

Bai, ordaina da, eta baita ere perbertsoa den ekosistema politiko-mediatikoaren logikaren ondorioa, honek aurpegiak behar baititu.

Batzuetan abantaila ere bada.

Baita ere, baina sarri gehiegi pertsonalizatzen da. Ikuskizunaren gizar-tean bizi gara eta honek liderrak eskatzen ditu. Nik onartzen dut nire bozeramaile funtzioa baina liderrarena ez.

Pertsona desberdinak dauden moduan lider desberdinak ere badaude.

Bai, baina uste dut kritika sakona egin behar dugula lidergoen gaiaz. Ni ez naiz liderra, behin-behineko bozeramailea naiz, eta nire lanaldi hau bukatzen denean CUPen jarraituko dut, dagokidan arloan lanean.

2013an Prozesu Konstituziogilea sortu zen. Zuek herritarren batasuna zarete, hori herritarren beste bata-



**Eskulanen
Etxea**

Elkano kalea, 5. Donostia 20004
T. 343 420 205 | F. 943 426 522 | M. 688 662 858
info@casalabores.com | www.eskulanenetxea.com

sun bat da, edo herritarren batasunerantzko beste urrats bat?

Uste dut herritarren batasunerako beste urrats bat dela. Gauza guztietan ados ez bagaude ere, bidaialagunak dira. Haien prozesuaren lehen 10 puntuak gure egitasmo politikoan ere badira eta, garrantzitsuena, haiek ere hain argi dute aldaketa egongo dela, hasi direla pentsatzen zein herri mota izango den gurea. “Baina ia berdina zaretel!” diosku jende askok. Gizartea, dena den, konplexua da eta ekimenen alde onak irakurtzen saiatu behar dugu. Prozesu Konstituziogileak oso gauza ona lortu du, etxean zegoen 50-60 urteko jendea kalera ateratzea. Jende honek frankismoa bizi izan du, 40 urtez demokrazia formalean egon da eta orain, aldiz, kritika zorrotza egiten dio kapitalismoari. Duela 10 urte ez zen posible izango.

Kritika ere badugu Prozesu Konstituziogilearekiko: herritarren batasunerantz egin behar badugu, ez zaigu egokiena iruditzen hau hedabideen bidez egitea. Ulertzen dut hedabideen aukera, baina halako kontuak lantzeko behetik hastea da egokiena.

Dena den, haiek garbi esan dute legebiltzarreko hurrengo hauteskundeetarako alternatiba bateratzailea jorratu nahi dutela.

Bai horrek ere harritu gaitu. Guri hainbeste kosta zitzaigun legebiltzarrean parte-hartzearen erabakia eta haiek hasieratik erdigunean jarri dute parlamentua. Edozein modutan, uste dut elkar ulertzera kondenatuak gaudela eta egingo

dugula topo. Egia esan, politena da eguneroko borroka askotan berez egiten dugula topo. Horrez gain, haiek lan egiten ari dira ezker zaharra (Iniciativa) eta ezker

“Legebiltzarreko gure hautagaientzat hiru neurri hartu ziren: legealdi bakarra, kargu instituzional bakarra eta 1.400 euroko soldata”

berriaren (CUP) arteko lotailu gisa aritzeko, eta ahalegina ongi dago, baina guk argi esan behar dugu gure baitan ezkerzakar horien jarduerarekiko oso ikuspegi kritikoa dugula eta haiekin topo egitea zailagoa izango dela. 2003tik 2011ra ezker zahar hori aritu da gobernatzen Katalunian eta 2007tik 2011ra ez zuten egin krisiaren kudeaketa desberdinik, aitzitik, finantza merkatuen konplize izan zen. Herri bat egin behar badugu inor ez da soberan eta askok egin beharko dugu topo eraikuntza horretan, baina ezker klasikoak izan duen jardueraren kritika sakona beharko da.

Ezkerreko independentismoan nagusi den ERC eta CUP daude. Aliatuak ala aurkariak?

Aurkariena ez zait gustatzen. Hiru desberdintasun nagusi ditugu. Lehena politika egiteko modua da, gure jarduera oso dinamikoa da, batzarra nagusi da eta sozialki insti-

tuzionalki baino aktiboagoak gara. Bigarrena da ezkerreko eredu desberdina dugula, haien erdua ia-ia hitzezkoa da, oinarri eta analisi gutxi du eta alternatibarako proposamen gutxi. Haiek eskola eta ospitaletarako murrizketak onartu dituzte eta guk ezin dugu onartu halakorik ezkerrearen izenean egitea. Hirugarren desberdintasuna lausoa da, CUPEk Herrialde Katalanen defentsa argiagotzen du ERCK baino.

Martxoaren 9rako erabaki beharko duzue EH Bildu eta BNGekin joango zareten Europako hauteskundeetara.

Kataluniako Legebiltzarra kritikatzeko bagenuen, imajina Europakoa. Bestetik, bozgorailuak beti dira onak, esate baterako salaketa egiteko. Horrez gain, legebiltzar horren %15-20 eskuin muturrekoa izango da eta, beraz, espazio hori lehiatu behar da.

ERC egon izan balitz joango zinatekete koalizio horretan?

Sortuk eta EH Bilduk hasieratik egin zuten proposamena izan zen ERCekin elkarrekin joateko eta guk hasieratik esan genuen hori ez zela posible. Azkenean ERCK ere beste bide bat hartu du, baina nik uste nuen Galeuska bloke hori eratu egingo zela. Guk ulertzen dugu Bildu, Euskal Herrian batasun dinamika bat egon da eta nahi izan du hori Kataluniara ekarri, baina gu urruti gaude horretatik eta distantzia handia da. Eztabaidaren erantzuna 9an. ■



lagunekin euskaraz

interneten ere bai

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Nor nahi zoazela. Nor nahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunaren artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

«Alemanian jada ez digute terrorismoaz galdetzen, egoera politikoaz baizik»

Alemanian Euskal Herriaren Lagunen (EHL) elkarteko sortzailea, Uschi Grandelek (Ulm, 1960) gertutik ezagutzen ditu Euskal Herriko eta Ipar Irlandako egoera politikoak. Arnaldo Otegiaren Argien Aroa alemaniarara itzuli berri duten honetan izan gara berarekin.

| MARTIN MENDIZABAL GARAI |

Noiz eta nola sortu zitzaizun Euskal Herriarekiko kezka?

Ipar Irlandarekiko elkartasunean aritu nintzen 20 urtez. Irlandara egin nituen bisitetan Euskal Herriko jendea ezagutu nuen, tartean Batasunako hainbat pertsona. Horrela izan nuen Euskal Herriko kasuistikaren berri. Seguran 2007an Batasunaren Mahai Nazionalaren aurkako atxiloketak eman zirenean hasi nintzen aktiboki parte hartzen. Hura inflexio puntu izan zen niretzako. Euskal Herriarekin elkartasunean lanean zebilen jende asko ezagutu nuen, baina denak oso bakarrik geunden, Berlingo talde bat izan ezik. 2008an Euskal Herriaren Lagunak sortu genuen, Alemanian bizi diren hainbat pertsonen laguntzaz, Ingo Niebel eta Raul Zelik, esaterako.

Zein da Alemaniako Euskal Herriaren Lagunen zeregina?

Egitura deszentralizatua daukagu. Ni jarduera nagusien koordinatzailea naiz, baina taldeek Alemanian barrena egiten dituzten ekintzak independenteak dira. Ekimen nagusia Euskal Herriaren Aldeko Elkartasun Eguna da, aurten apirilaren 4tik 13ra bitarte izango da. Guretzat data oso garrantzitsua da, talde guztiak elkartzeko eguna baita. Testuinguru internazionalista horrek gure aktibitateak aberasten ditu.



Uschi Grandel, Arnaldo Otegiaren liburuaren itzulpena aurkezteko unean, Berlinen.

Gure helburua, jendeak Euskal Herriaren egoera politikoaz ezagutzea da (errepresioa, preso politikoen inguruko mobilizazioak, ezker abertzalearen ekimenak...). Horrez gain, borroka sozialen berri ematen dugu, AHT-aren aurkako protestak, kasu.

Zer-nolako ezagupena dago Alemanian Euskal Herriaren inguruan?

Borroka armatuaren garaian, ezagupen bakarra ETA zen. Borroka armatuaren amaiera eta ezker abertzalearen norabide berriarekin beste errealitate bat sortu da. Kazetariak eta alderdi politikoak eskubide zibil

INGO NIEBEL

eta politikoen alde egiten den borroka interesatzen hasi dira. Jendeak jada ez du terrorismoaz galdetzen baizik eta egoera politikoaz. Bilboko manifestazioa prentsa alemaniarrean ere albiste izan zen; mobilizazioaren ondoren gure webgunean bisitak izugarri ugartu ziren.

Zer ikusmolde du alemaniar ezkerrek Euskal Herriko prozesuaz?

Esan daiteke ezker alemaniarrean bi sektore desberdin daudela: alde batetik, sektore internazionalista dago. Herrien erabakitzeko eskubidearen alde daude, esan daiteke askapen nazionaleko borroka ulertzen dituztela, Espainiako Estatuan dauden errealitateak onartzen dituzte, Kataluniako erreferenduma, adibidez. Beste sektore batek nazioaren kontzeptuarekin arazoa dauka, nazismo garaiko nazionalismoarekin nahasten duelako.

Nola bizi duzue Euskal Herriko egoera politiko berria?

Ezker abertzalearen estrategia berria arrakastatsua izan da, eta Alemaniako sektore progresistan garapen hori oso positibo ikusten da. Jendeak elkarriketa beharrezkoa dela ikusten du, hala nola preso politikoen Euskal Herriaritzea... Gure lehentasuna da Euskal Herriak jasaten duen errepresioaren aurrean elkartasuna adieraztea.

Bi aldeetako biktimak elkartzen hasi dira beraien bizipenak kontatzeko. Zer garrantzia du gai horrek zure ustez?

Irlandako kasua ezagutzen dut, eta han lehen eta bigarren klaseko biktimen arteko desberdintasuna egin zen. Euskal Herrian alde bateko biktimak, hau da, torturatuak, GALen biktimak eta Estatu aparatuak eragindakoak ez dira kontaktizunaren parte. Alde bietako biktimen kontaktizunak onartu behar dira elkarbizitza baketsu bat edukitzeko; garrantzitsua da ikustea gatazkaren historia nola kontatzen den. Alemanian orain arte kontatu dena terrorismoaren aurkako borroka da.

Alemanian hainbat politikarik babesa eman dio presoek eskubideen aldeko aldarrikapenari. Estatu mugiarazteko balioko al dute halakoek?

Ezker abertzalearen estrategiak bi oinarri ditu: euskal gizartearen indar metaketa eta eremu internazionalaren laguntza. Azken honen isla izan zen giza eskubideetan adituak diren nazioarteko hamabi pertsonalitatek “*Auf dem Weg zum Frieden*” (Bakera-ko bidea) adierazpena sinatzea. Espainiako Estatuari preso politiko- en aferan pausuak eman ditzala eskatzen zaio eta Alemaniako Berdeen kide den Klaudia Rothek ere sinatu du. Adierazpen horiek ez dira oso ezagunak, baina aski garrantzitsuak Estatuari presio egiteko.

Arnaldo Otegik bere liburuan dio Estatu mugiarazten duen bakarra immobilismoaren kosteak esfera politikoan garesti ordaindu behar izatea dela. Estatuak presoak erabil-



EHL-k *Lichtblicke im Baskenland* liburuak kaleratu du Papyrossa argitaletxearekin, Arnaldo Otegiren *Argien Aroa* liburuaren itzulpena. Berlinen egindako aurkezpenean, Otegi kartzelan bisitatu zuen Andrej Hunko Die Linkeko diputatua izan zen: “Azken urteetan hainbat preso bisitatu ditut, Kazajistanen buruzagi sindikal den Natalia Sokolova kasu. Ordubetez izan nintzen Sokolovarekin parez pare. Otegiarekin, kristal bat tarteko, telefonoz 45 minutu baino ez, eta itzultailerik gabe”.

tzen ditu mugimenduaren barruan zatiketak eman daitezke. Irlandan esan daiteke antzeko zerbait gertatu zela. 2001ean preso batzuk askatu zituzten baina bitartean bake prozesua etengabe erasotzen zen, besteak beste militarren partetik.

Eskuin muturraren gorakada estatuen ahultasun zeinua al da? Nola ikusten duzue hori Alemaniatik?

Espainiako Estatu bere diskurtsoaren preso da. Kanpora begira erakutsi nahi izan du ez dela gatazka politikorik existitzen, Estatuaren eta herritarren aurka egiten zuen erakunde terrorista bat baino ez. Prozesu berriarekin eta EPPKren adierazpenarekin jendeak beste

ideia bat har dezake. Ondorioz beste argumentu politiko batzuk garatzera derrigortuta dago. Pentsatzen dut ultraeskuinaren beldur dela. Alemaniarekin alderaketa bat egin daiteke. Erregimen naziaren propaganda bizitza demokratikoaren parte zen. Horren adibide arrazismoa da, ultraeskuinak argumentu hau erabiltzen baitzuen botoak irabazteko. Alderdi kontserbadore batzuk ez dute arrazismoaren aurka borrokatu nahi, beldur baitira botoak ultraeskuinera joango ote zaizkien, baina aldi berean sektore hau indartzen dute. Espainian antzeko zerbait gertatzen dela pentsatzen dut. ■



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

EKOTASAREN KONTRAKO PROTESTAK

Bretainiaren kolera gorria

30.000 langile, nagusi, laborari txiki eta handi, arrantzale, artisau zein funtzionarioik hartu zituzten Kemper-eko karrikak iazko azaroan. Analistak argiki mintzatu ziren: bat-bateko leherketa inkoherente hark ez zuen segidarik izanen. Bi asteren buruan 40.000 lagun elkartu ziren Karaez-en.

| ERWAN KERNE |

Argazkiak: Bruno Pélican



Ekotasak, teoriar, trenbidea erraztu beharko luke; baina SNCF-k ez du lanik aurreikusten eta Bretainia zokoratuago geratuko litzateke, inork baino gehiago pagatu ondoren. Zentzugabekeria horrek piztu du bretainiarren haserrealdia.

BURGOSKO AUZO BATEN borrokaren aldeko elkarretaratzeak antolatu ditugu ez aspaldi gurean. Bretainiako masa-fenomeno berri honetaz zer dakigu ordea? Zerk du Breizheko jendartea plazak hartzera bultzatu? Zertara datoz txano gorri horiek buruan? Eta batez ere, zer dira eskatzen ari manifestariak?

Egin dezagun atzerako jauzia, afera argitze aldera: 2009ko otsailean,

1.000 enpresaburu txiki bildu ziren ekotasaren kontra protesta egiteko. *Le Monde*k salbu, komunikabide frantses guztiek aipatu gabe utzi zuten berria.

Ekotasak, teoriar, trenbidegarraioa erraztu beharko luke, karburoa eta errepideak zerga berriaz zamatuz. SNCF-ek (Frantziako trenbide konpainia) alta, ez du bere hedapenaren bideratzeko lanik

aurreikusirik, eta honenbestez Bretainia zokoratuagorik geldituko litzateke, hori bai, inork baino gehiago pagatuz. Zentzugabekeria horren aitzinean, 2013ko ekainean 18 enpresarik luzatu zituzten honako eskakizun hauek: Bretainiako ekonomia lehenestea –lurpeko ekonomia %25ekoa da, Frantziako batez besteko %15aren aldean–; zinezko deszentralizazioa, eskual-

deak ekonomia goberna dezan; eta esperimentatzeko eskubidea.

Bonedou Ruz buruan, frantses zergari sua

Agorrilean laborari, garraiolari, ofiziale eta langileak elkartu ziren Pennar-Bed-en, eta ekotasa biltzeko erakia zen lehenbiziko ataria eraitsi zuten. Hor ziren agertu txano gorriak lehen aldiz... hamazazpigarren mendeaz geroztik.

1675ean herritarrek matxinatu egin ziren Louis XIV.aren aurka, zerga berriak inposatu nahi izan baitzizkien, Britainiako Parlamentuaren adosmenik gabe. *Bonedou Ruz*-en matxinada deitu zioten bretainieraz, matxinoek txano gorria baitzuten ezaugarri. Azken buruan Frantziako Gobernuari atzera eginarazi zioten.

Iazko uda eta udazken guztian zehar beste atari batzuk erori dira lurrera, elkarretaratze ikusgarrietan; ehunka kamioi eta traktore, eta haien erremolkeak jaurtigaiez beterik: azalore, belar-pilota eta arrautza. Urriaren 26an poliziaren eta manifestarien arteko gatazka bortitzen ondorioz,

80 zibil zauriturik suertatu ziren, batzuk larriki. Gertaerek lastertasun handia hartu zuten geroztik. Txano gorriak ugaritzen hasi ziren orotan gaindi, eta matxinada moderno horren antolaketak sendotzera egin zuen. Horren aitzinean, gobernuak ohiko dituen kriminalizatze saioak abiatu zituen. Kemperren manifesta-

Frantziar sindikatuek ez dute bretainiarren arteko elkartasuna ulertzen. Haien bazkideei eskatu zieten patronalarekin junta ez zitezela, arrakasta txikiz

zioa adibidez, lasaia izan zen, marinel eta laborariek hala eskaturik. Gazte guti batzuek CRS poliziak zirikatu zituzten, edo zuzenago erran behar da antidisturbioak hor zirela probokatzeko; dena bale baita txano gorriak bortizkeriarekin lotzeko. Pentsan erreportaje apokaliptikoak eman zituzten: txano gorri maskara-

tuak, bandera zuri-beltzak airean eta hiriko gerrilla. Barraskilo operazioak ere izan dira hala ere, auto, kamioi eta traktore ilara luzeak emeki-emeki gidatuak. Usu, autobideetako sarretan bukatzen dute, eta bertan ekotasa-atariari su emana da. Deialdiak ostrikultoreek, edo zerri-hazleek, edo kontserbetako langileek dituzte egiten, bakoitzak bere aldia.

Ekintzen arrakastak dardara eragin du paristar botere-guneetan, eta ez gobernuarenean soilik: frantziar sindikatuek ez dute bretainiarren arteko elkartasuna ulertzen. Haien bazkideei eskatu zieten patronalarekin junta ez zitezela... arrakasta txikiz. 15.000 txano gorri bildu ziren egun berean, 1.500 bat lagun eskas elkartu ziren kontra-manifestazioan, sindikatuek deiturik. Alta, badira langile eta sindikalista franko Bretainian, bai eta gero eta langabetu gehiago ere, Parisek edo multinazionalak harturiko erabakien ondorioz izan baita kaleratze franko eskualdean: Marine Harvest, Alcatel, PSA... Ordea, balirudike sindikatuak ez direla horren jakinean egon orain artean.

Kalean da

aizu!

- Imanol Epelde arin-arin
- Esa: Lasaitasunan, lasaitasunik ez
- Martxuka, ezohiko denda
- Erribera 13ren azken egunak
- Kafekonpon, konponketak lagun artean

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**

aizunet.org



Txano gorriak ikur bilakatu dira protestetan. XVII. mendean, zerga berriak jarri zizkielako bretainiarrek Luis XIV. aren kontra oldartu ziren, eta matxinoek txano gorria zuten ezaugarri.

Mugimendua, berriz, bere eskakizunak artikulatzen zihoan. Azaroaren 15ean *Bretainian bizi, erabaki eta lan egin* kolektiboak bere xedeak deklaratu zituen: Bretainiako bideak doan, eta ekotasaren behin betiko ezeztatzea; Dumping sozialaren bukaera, bai eta ekonomia bretainiarren esparru osoak kaltetzen dituzten konkurrentzien distortsioen deuseztatzea ere, milaka langabetu eragiten baitituzte; eta indar sortzaileei bide ematea, hurbileko tresna gehiago emanez eta traba administrazioak txikituz.

Ohar soziolinguistikoa: komunikazio guztiak elebitan egin izan dira.

Iraultza hobe baten menturan

Txano gorriarena ez da keinu historiko bakarra: *Arranguretako kaierak* ere zabaldu dira, frantses inkontzientean suposa dezakeen guztiarekin.

Iraultza garaian horrelako kaierak zabaldu ziren, erregimen berriaren atarian. Bertan, herritarrek sistema zahar pipiatuaren kontrako kexak ezarri zituzten, erregetza kentzeko ere balio izan zutenak. Oraingoan, Bretainia guztiko txano gorrien 40 komitek bilduko dituzte herritarren iradokizunak herrialdez herrialde, iraultza berriaren prologo gisa.

Halaber, martxoaren 8rako Estatu Orokorretara ere deituak dira hiritarrek Karaezen, munta handiko deialdia, antolatzaileen arabera.

1789an bezala, inposatzeko ordeztutea eskatzen zaio botereari orain. Tokian tokiko aberastasuna sortzen laguntzen dutenekin bat lanean aritzea gomendatzen dute,

eskualdeari Pariseko teknokratek aitzinetik pentsatu eta diktaturikoak behartzeko partez. Mezuak argiak dira: “Utz gaitzazue gure aferez arduratzen”, “Herria azkar dezagun”.

Frantziak, bere menpean diren herriak atzartzearen beldur baita beti, fitxa ekonomikoa mugitu du azkenean: Jean-Marc Ayrault Lehen ministroak *Etorkizuneko Ituna 2014-2020* izenpetu zuen Rohazhon-en iazko azaroan.

Sei astez zirrimarratua, eta txano gorriekin batere kontsultatu gabe. Itunaren bidez 2.000 milioi euroko laguntza hitz eman du: diruztatze berriak eta lehenagotik aginduak ziren kredituak barne hartuz. Tokiko ekonomiaren gako diren hiru alorretako berregiturei eragingo lieke, agro-elikadura, telekomunikazioak eta autogintza. Azken bi sektoreak estatuaren erabakien menpe daude.

Martxoaren 8rako Estatu Orokorretara deituak izan dira hiritarrek Karaezen, munta handiko deialdia, antolatzaileen arabera

Bestalde, François Hollandek eskualdeen murriztea aipatu du, Bretainiarendako onuragarri izan daitekeen neurria bateratze bidean: Departamendu historiko guztiak bat eginik eskualde bakarrean. Baina Lehen Ministroak errotik errefusatu zuen berehala aukera hori.

Aurten zer?

Bretainiarrek Frantziaren menpekotasun luzea jasan dute. Independentista edo autonomista gutxiengo bat kendurik, naturala zaie frantses izatea. Parisek ederki jokutzen du beti “etnizismoaren” eta “kolaborazionismoaren” mamua, edozein sentimendu edo eskakizun legitimoren aitzia. Bego geldirik h(il)erria.

Joko-arau iruzurti horren gainetik, txano gorriek berritasun bat ekarri dute, eta jokalekua zabaldu *Bretainian bizi, erabaki eta lan egin* leloaren bidez.

Erabakitzea boterearen parte baten galdatzea da, zuzenean dagozkien erabakien hartzeko. Horretan eskoziar eredia dute hurbil, eta nazioarteak aisa konpreni lezakeen bidea dute urratu, eztabaida historiko amaigabeetan erori gabe.

Frantzia jakobinoak onar lezake? Ez ote da jendearen borondatea erosten saiatuko? Bidea ireki da dagoeneko *Etorkizuneko Itunarekin*. Zein izanen da bretainiar jendar-tearen erantzuna estatu manipulatzaile horren menpean? *Arranguretako kaieren* itxaropenak iraunen ote du? Frantsesek segur aski, txita arrautza barnean garbitu nahiko dute.

Seinale argiak piztu dira joan den udazkenean Bretainian, nola Korsikan hala Euskal Herrian. Katalunia aipatu gabe. Herriek nahi baitute beren burua administratu. Kolektiboki, alderdikerien eta beste zatiketen gainetik. Une interesgarriak Frantziaren ahultasunaz balia gaitezen. ■



Bi hedabide hasiberri eta beste bat kolokan

BILBON 26 TALDEK bat egin eta uriola.info webgunea sortu dute. Hedabideak, euskara elkarteak eta kultur taldeak dira 26 kideak, eta helburu baterako elkartu dira: Bilboko eguneroko informazioa euskaraz ematea.

Mota guztietako gaiak jorratuko dituzte: kirola, ekonomia, ingurumena, kultura eta abar. Besteak beste, ondokoak dira egitasmoa abiatu duten taldeak: Bizkaia Irratia, Zenbat Gara elkarte, Elorri Bertso Eskola, Bilboko EHE, *Bizkaie!* Azkue Fundazioa, Berbaizu Euskara Elkarte eta Pare Deustuko gazte talde feminista.

Urumea bailaran berriz, ibarreko herriek hedabide berria estreinatu dute. *Urumeako kronika* larunbatero iritsiko da Hernani, Ereñotzu, Astigarraga, Arano eta Goizuetara. Lehen hiru herriak Gipuzkoakoak dira eta azken biak Nafarroakoak. Papereko argitalpena doan izango da astero, eta webgunea egunero berrituko dute. Hernaniko Dobera

Euskara Elkarteak izan da bultzatzailea. Astigarragak *Urumeako kronikaz* gain, asteazkenetan *Kronika* berezia izango du herrirako. Hernanin eguneroko *Kronika* argitaratzen jarraituko dute.

Ilusioz hasi dira Bilbon eta Urumea bailaran hedabide berriak lantzen. Donostian ere, *Irutxuloko Hitza*n, gogoz ari dira lanean, baina haiek hedabidea kinka larrian dagoela uste dute. Arazo ekonomikoek itota dago astero paperean argitaratzen den *Irutxuloko Hitza*, harpidetzek behera egin dute, baita diru-laguntza eta publizitateak ere. Urte eta erdiko epean hiru langile gutxiagorekin ari dira lanean, produktuan aldatetak egin dituzte eta soldata jaitsi dute. Ostiralero kalean den 16 orrialdeko agerkaria eta egunero berritzen duten webgunea arriskuan daudela diote langileek. Donostian, auzoz auzoko bilkurak egingo dituzte herritarrei egoeraren berri emateko.



EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Kutxabanken espoliazioa saihestu

KUTXABANKEN ETORKIZUNA, hau da, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako aurrezki kutxen etorkizuna, eta beraz euskal industria eta ekonomiarentzako finantza-bizkarrezur gisa duen funtzio soziala, arriskuan dago, pribatizazio prozesua dela eta. Eta hortaz, azken hamarkadatan milaka aurreztaile, erakunde publiko, udal, aldundi eta langileri esker lortutako ondasuna dago arriskuan. Herritarren eraso azkarrik ez badago, ez badago erantzun politiko eta instituzionalik, inbertitzaile putreek hartuko dute kontrola eta espoliatu egingo dute. Joan den astean 2013ko kontuak aurkeztu zituzten eta jakinarazi zuten 108 milioi euroko etekinak —zerga ondoren— izan zituen, 2012an baino %28 gehiago. Bere industria-zorroa 3.100 milioi eurokoa da, berezko funtsen %70, hain justu.

Jakina, euskal kutxek, Europaren aginduz, esan nahi baita nazioarteko kapitalismoaren kudeatzaileen aginduz, Kutxabanken duten kontrola %30era murriztu beharko dute. Gainerakoa pribatizatu egin-

go da. Kutxabank jada hasi da enpresa ezagunetan zuen partaidetza saltzen, hala nola Euskaltel eta Ibermatikan zuena, eta Iberdrolan ere bere presentzia gutxitu du. Eta arrisku-kapitaleko inbertsio funtsei saldu die partaidetza hori, funts horiek putre bilakatzeko dira, berehalako errentagarritasunaren bila, jardura produktiboarekin zerikusirik ez duen interes espekulatiboz erosten baitituzte partaidetzak. Kutxabank finantza putreek inguratutako dago, eta erresistentziarik ez badago, hilko da eta bere ondarea harapatuko dute, aldundi, udal, zergadun eta langileen ondarea. Kutxabankekin putreen diru-goseari eutsiko badio, haien atzaparretatik libratzeko borrokatu beharko dugu. Alternatibak badaude: aurrezki kutxa gisa mantentzea edo kreditu kooperatiba bihurtzea. Kosta ahala kosta saihestu behar da norbaitek “euskal kutxen sistemaren ekonomizazio” moduan deskribatu duen hau.

Juan Mari Arregi



«Hizkuntza galera eta pobrezia jatorri bereko ondorioak dira»

Ohikoena da garapenerako lankidetza proiektuetan, galtzeko arriskuan diren hizkuntzak eta kulturak kontuan ez hartzea. Belen Urangak norabidea aldatzen hastea proposatzen du.

Testua eta argazkia:

| AMAIA UGALDE BEGOÑA |

GARAPENERAKO lankidetzan hizkuntzak biziberritzeko proiektuak integratzeko proposamena landu dute UNESCO Etxeak, Munduko Hizkuntzen Ondarearen UNESCO Katedrak, Garabide elkarteak eta Soziolinguistika Klusterrak. Genero eta ingurumen irizpideen antzera, kultur arloko proiektuentzako atala sortzea proposatu dute, baita zehar-lerro moduan aintzat hartzea ere. Proposamena (*Garapenerako lankidetzaren proiektuetan hizkuntza-irizpidea txertatzeko proposamena*) egin ahal izateko klusterreko teknikari Belen Urangak erakunde lankidetzarako hainbat plangintza aztertu ditu.

Orain arte hizkuntza eta kultura bultzatzeko lanak ohiko lankidetzatik pixka bat aparte egon dira. Zergatik izan dela uste duzu?

Uste dut arrazoiak badaudela horretarako eta modu naturalean ulertu behar dela. Nazioarteko garapen lankidetzaren sortu zen nolabait munduko desoreka ekonomiko injustuei erantzuteko. Batez ere muturreko egoera latzetan egin izan da lana eta orain arte, hemen eta nazioartean, kultura esparrua ez da ikusi lehen mailako behar moduan. Ez da arraroa. Zailtasunak daude kulturen biziberritzea eta lankidetzaren lotzeko, baina pixkanaka gauzak aldatzen hasi dira.



“Ikuspegi globala falta da, feminismoak edo ekologismoak badaukaten hori. Hizkuntzen galera prozesua mundu mailako fenomeno da, eta hala denez, erantzunak mundu mailakoa izan behar du”.

Pobretze prozesuak eta hizkuntza galerak sarri elkarrekin doazela diotue txostenean.

Lankidetzaren proiektuetan sarri egiten da lan galtzeko arriskuan dagoen hizkuntza bateko hizkuntza komunitateekin. Kontuan eduki behar dugu hizkuntzen galtze prozesua ez dela berez sortzen den zerbaite; sarritan egoera ekonomiko eta

sozial desorekatu baten isla da. Botere ekonomiko, politiko eta sozial handiagoa duen beste hizkuntza komunitate baten eraginez, askotan, botere gutxiago duen komunitateak utzi egiten dio bere hizkuntza hitz egiteari edo transmititzeari. Pobrezia eta hizkuntzen galera jatorri bereko ondorioak direla esan daiteke.

Lankidetza proiektuetan hizkuntzari ingurumenak eta generoak duten antzeko eginkizuna ematea proposatzen duzue.

Munduko krisiei erantzuteko bidean, nazioartean garapen iraunkor kontzeptuak garrantzi handia hartu du. Hori da lankidetzaren oinarritzko pentsamendu nagusia, eta aztertutako plangintzetan ere horrela ikusi dut. Garapen iraunkorraren baitan hiru esparru daude: ingurumenaren zaintza, garapen ekonomiko ekitatiboa eta garapen soziala. Nazioarteko eragileek horrela aitortu dute, eta horrek eragina izan du gizartean. Joan-etorriko zerbait da: gizarteak ere eragina izan du kontzeptua garatzerakoan. Garapen sozialari dagokion atalean, ez da behar bezala kontuan hartu kulturak eta hizkuntzak daukaten pisua. Aldiz, garatu dira hainbat gai, oso-oso inportanteak: osasunaren zaintza unibertsala eta genero ikuspegia, esaterako. Uste dut oso modu naturalean integratuko dela kulturaren garapena garapen iraunkorraren baitan, eta horrek onarpen soziala ekarriko duela berekin. Izan ere, pentsaezina da garapen iraunkorra tokian tokiko hizkuntzaren eta kulturaren garapenik gabe.

Plangintzetan garatzeko falta den atala da orduan hizkuntzarena?

Esplizitu egitea falta da. Aztertu ditudan plangintza guztietan agertzen da garapen iraunkor kontzeptua, baina kultura eta hizkuntzei buruz, ezer gutxi. Hori hemen eta nazioartean, horrela da. Zentzu horretan, oso interesgarria izan zen 2010ean Bangkokeko Unescok proposatu zuena; Milurteko Helburuak lortze aldera baliagarria izango litzatekeela kontuan hartzea lekuan lekuko hizkuntza. Nazioarteko erakundeak hurbiltzen ari

dira, gizarteak hurbiltzen hastea komeni da: zergatik ez sortu hizkuntza guztien aldeko mugimendu global bat?

Beste gizarte mugimendu batzuen parekoa?

Zergatik ez. Gakoa da konturatzea hizkuntza bakoitzaren galera arriskua ez dela komunitate horren ardura bakarrik. Alor honetan ikuspegi globala falta da, feminismoak edo ekologismoak badaukaten hori. Hizkuntzen galera prozesua mundu mailako fenomeno da, eta hala denez, erantzunak mundu mailakoa izan behar du. Interesgarria izango

“Pentsaezina da garapen iraunkorra tokian tokiko hizkuntzaren eta kulturaren garapenik gabe”

litzateke mundu mailako mugimendu bat sortzea. Mugimenduaren motore hizkuntza gutxietako hiztunak izango ginatke. Arazoa guk bizi dugulako, eta guk daukagulako esperientzia eta elkartasun sentimendua. Baina hiztun horiek aktibatzeaz gainera, oso inportantea da hizkuntza gutxituen hiztun ez diren komunitateak ere kontzientziaztea.

Lankidetza arloan lanean dabilen jende askok soziolinguistika ezagutzen falta izango du zuen proposamenari erantzuteko. Hori oztopoa izango da?

Lankidetzan dabilenak lan asko egiten du, eta esango nuke gaur egun prozedura nahiko konplexuak daudela tartean, seguru asko burokratiakoegiak. Lan horiek errazteko bidea bilatzen ahalegindu beharko ginatke. Guk ez dugu gauzak konplexua-

go egitea nahi, gai hauek lankidetzan integratzea baino. Beste gaiekin egin den antzera, bitartekoak jarri beharko dira. Formazioa mila modutan irudikatu dezakegu. Herri honetan hori ondo egin daiteke, jende askok ulertzen duelako gaia. Hor herri administrazioak ulertu behar du ezin dela GKEen gain bakarrik utzi formazio hori, erakundeek ardura daukate.

Egungo testuinguru ekonomikoa ez da lankidetzarako onena. Diru-laguntzak asko jaitsi dira azken urteotan.


Hori horrela da, bai, baina pentsamenduak jarraitu behar du. Nik uste dut garapen lankidetza ez dela albo batean utziko, eta buelta eman-go zaiola egoerari. Gure proposamena da: zergatik ez dugu irekitzen atea, galtzeko arriskuan dauden hizkuntzen gainean proiektuak egiteko? Ez dugu inor behartuko hori egitera, baina eman dezagun aukera. Hori batetik, eta bestetik, zeharlerro moduan, lankidetza proiektuetan kontuan hartu dadila bertako hizkuntzaren egoera eta bertako hiztunen pertzepzioa hizkuntzarekiko zein den.

Euskaldunok arlo honetan erantzukizun antzeko bat daukagula sentitzen duzu?

Erantzukizuna denok daukagu ikuspegi ekologiko batetik. Gure kasuan, herri bezala badaukagu eza-gutza bat, momentu batean gainbeheran zetorren hizkuntza bati gutxienez norabidea aldatzeko gai izan garelako. Horregatik, gure ardura bikoitza da: alde batetik, ondorengoei hizkuntza ematea ziurtatu behar dugu, eta beste alde batetik, munduaren aurrean lagun-garria izan daitekeen hori konpartitzeko prest egon behar gara. Ziur gaude bueltan zer ikasia izango dugula. ■



Babeslea: Bilboko Udala



Fukushima + 3 urte: kontrolik gabe dirau baina gutxi axola dio

Munduak bere errutinen artean irensten ditu “Fukushima” lerro-burupean hedabideek tarteka zabaltzen dituzten datuak, dagoeneko menderatutako istripu baten ondorioak balira bezala. Tamalez, hiru urteren buruan, hango makina matxuratuen eta erregai nuklearren kontrolik ez dute berreskuratu teknikariek eta hondamendiak lanean dirau.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

DATU BAIKOR BATEKIN HASTEKO? Goazen, bada: erregai nuklearrezko 374 barra atera dituztela otsailaren 25a arte Fukushima Daiichiko 4. erreaktorearen gaineko piszinatik, leku seguruagora eramateko. 1.533tik 374, laurdena eskas iazko azaroan hasi zirenetik. Urtea joango zaie 2011n lurrikarak zintzilik utzi zituen erregai arriskutsuon lekualdatzea osatzeko; tartean beste lurrikara larri bat gerta baledi, Japoniako jendeek ez lukete otoitz egiteaz beste kontsolamendu handirik, halako triskantza eragin lezakete.

Baina erregai barrak alea eramaten dituzten gisan, tantaka iristen zaizkigu Fukushima albiste txar berri gehiago. Iristen dira... baldin eta gaiaz interesatzen baldin bazara istripuaren jarraipena egiten duten blog eta bestelako hedabide elektronikoko minoritarioetan. Telebista eta prentsa handiaren agenda *lobby* nuklearrak zorrotz kontrolatzen du.

Albiste txar bat, benetan izugarria, *Japan Times*ek zabaldu du otsail honen hasieran: TEPCOk barkamena eskatu duela ziurrenik 2011ko martxotik, istripua gertatu zen unetik, isuri erradiaktiboen datu baxuegiak eman dituelako. Iazko udan ohartu omen ziren okerraz, ordura arte uste eta argitaratu baino askoz erradioaktibitate gehiago joan omen da urarekin itsasora.

Ez du merezi irakurlea zorabiatzerik litroko hainbeste estrontzio edo zesio edo plutonio becquerel en xehetasunekin. Bistakoak dira kontrolik ezaren ondorioak: bertan aritu ziren langileek aitortua baino kutsadura anitzez bortitzagoa nozitu zuten —epaitegietara jo dute batzuek—, oraindik inork ez daki zenbat erradiazio joan den itsasora, mesfidantza handiagotu da une honetan zabaltzen diren datuen fidagarritasunaz...

Hala ere, gaitz erdi litzateke arazoa lehengo kutsadurak oker neurtu izana. Are larriagoa da eten gabe ari direla zabaltzen isuri, ihes eta kutsaketa berrien datuak, funtsean errektore matxuratueta erreagaiak hozten erabilitako urak sarritan zuzenean lurpera doazelako, beste batzuetan ur kutsatuok biltzeko tanke eta hoditeriek itoginak dauzkatelako.

Otsailaren 20an zabaldu zen 100 tona ur kutsatuk egin zutela ihes biltegietatik. Lehenago, iazko abuztuan, 300 tona oso kutsakor joan ziren itsasora. Asko ala gutxi dira lau zientzu ur irradiatu? Ihesok eraman duten erradioaktibitate kopurua hain da handia, ezen eta energia nuklearraren kontrolerako Japoniako erakundeak jakinarazi baitu ihesa gertatu den gunea nazioarteko INES (*International Nuclear and*

Naoto Matsumura Fukushima laboraria Tokioko kalean bere aldarrikapenak oihukatzen. Irudia hartu dugu haren sostengatzeko hainbat bolondresen biziartzen duten *Naotomatsumura Weebly* blogetik. Fukushima zentraletik oso hurbil Tamioka herrian bizi den gizon honen istorioa kontatu da aurreko Net Hurbil batean. Agintarien esana betez Matsumurak ere alde egin zuen arren, oharturik Japoniako edonon alferrik zegoela, laster etxera itzuli zen, eremu debekatura. Bertan bizi da, bakar-bakarrik, mundu osotik iristen zaion laguntza baliatuz, bere etxaldea bezala inguruan aurkitu dituen aziendak eta klase guztietako animaliak zainduz. Tartean, TEPCO konpainiaren maskota zen ostruka, abandonatua ere berarekin bizi da. Frantzia, Alemania eta Suitzan dauden eraikin nuklearrak bisitatu eta bere iritziak azaldu dituzten konbidatuak dute, martxo honen 4tik 21era. Sinesmen handiko erresistentea.

Radiological Event Scale) eskalan 3 mailakoa dela. Beraz, une honetan Fukushiman bada 7 eskalako istripu nagusia eta bere barruan gertatu da bigarren bat 3 mailakoa.

Honelako albisteak ezagutu ditzakegu —frantsesa edo batez ere ingelesa ulertze aldera— Interneten informazioak bildu eta itzultzen ari diren hainbat boluntarioi esker. Arestian aipatu duguna, esaterako, Iori Mochizukik *Fukushima Diary* blogean egiten duenari zor diogu: berak webgune ofizial batean japonieraz ikusia itzuli du eta ondoren zabalduko dute ingelesezko *Fukuleaks*, frantsesezko *Pectine* edo gaztelaniazko *Resúmenes desde Fukushima* gune kolektiboek.

Lobby nuklearrak bidea libre

Fukushimako hondamendiak zentral atomikoei buruzko eztabaida munduratu zuela uste genuenoi itxaropena hoztu zigun Alfonso del Val —LARRUN bat eskaini zitzaion hondakinetan aditu eta ezkerreko ekologista jakintsuak: “Oker zaude, ez da ezer aldatuko, nuklearren industria hori eta gehiago irensteko gai da”.

Arrazoi zuen. Otsailaren 22ko zenbakian Madrigo *El País*ek titulu handietan hedatu du: “*El mapa nuclear tras Fukushima*”. Hizki handitan honakoak ere: “AEBek bi



munduak muturren aurrean aurkitu ditu ondorioak. Industria nuklearrak gizarte osoari ordainarazten dizkion ezkutuko koste ez aitortuak. Japonian, Lehen Ministro nuklearzalea hautatu izanak ez ditu salbatuko herritarrak Fukushima garbitzearen prezio ikaragarritik, pittinka badoaz ezagutzen herritarren osasunean eragin kalteak, saminen zerrenda luzatuko zaie ondoko hilabeteetan.

Itsasoa, berriz, badoa zabalduz jasotako irradiaizoa. Lehen arrastorak iritsi dira AEBetara, oraingoz arriskurik gabeko mailakoak, omen. Bidean doazkie gehiago.

Nuklearren kontra borrokatzen dutenek urrun dauzkate hedabide handien fokoak. Japonian bezala munduan segitzen dute lanean, jakinik beste nonbait ari dela egosten hurrengo Fukushima.

Eztabaida piztu-itzali ibiltzen den Frantzia ibiliko da ARGIA hau plazaratzeko egunetan Naoto Matsumura, hondamendiaren gunean bere eta inguruan aurkitutako animaliak zainduz bizitzea hautatu duen gizona, *Fukushimako azken gizakia* deitu dutena.

Martxoaren 4tik 21era bitartean, Paristik abiatuta, bisitatuko ditu hondakin erradioaktiboaren zaborteak, Alsazian itxi ezinik ari diren Fessenheimeko zentrala, hortik pasatuko da hitzaldiak emanez Alemaniara eta Suitzara. Pierre Fetet ekintzaileak antolatu du gastuak pagatzeko diru bilketa *Fukushima* blogetik. Lobby nuklearrak ezkutatzen duena azaltzeko... ikusi nahi duenari. ■



erreaktore berri eraiki nahi dituzte, 30 urteko geldialdiaren ostean lehenak. Txina 28 ari da eraikitzen. Piztaldi atomikoaz hitz egin daitezke? Arabako mugan daukagun Garoñaren kudeaketa Espainiak eta Europak nola burutzen duten ikusirik, bai.

Fukushimako istripuaren beroan zentralak ixteko erabakia hartu zuten herrialde urrien kasua kendurik, *bussiness as usual* da lobby nuklearraren goiburua. Esaterako, Frantzia. Irudi katastrofikoak kontsumituz telebistako programa bat gehiago bailitzan, herritarrek ez diete kasurik egin Fukushimakoa bezalako batek Hexagonoa kiebrara eramango lukeela demostratu duten azterketei.


Aseguru konpainien paradisu, Suitzan, gobernua erabaki du zentral nuklearren inguruko segurtasun eremua zabaltzeko eta 50 kilometro arte bizi diren herritar guztiei iodo pilulak zabaltzea. Ondo begiratu, orain enpresetan hain zorrotz betetzen diren segurtasun protokoloen eredu bera da, istripurik balego aurrez hartuta zeuden gutxieneko neurriak, kalteordainak saihesteko. Tamalez, Gasteizko jendeak ez dira kalbinistak eta Eusko Jaurlaritza ez da aurkitu horrelako gasturik egin beharrean.

Baina jendeek begiak estalirik ere, Fukushimakoa den 7+3 mailako istripuak bizirik jarraituko du datorren mende erdian. Gerta litezkeen konplikazio handiagoei katastrofismorik egin gabe ere,



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Xabier Letona



DANI BLANCO

PSN eta Bildu

BILDU-K izan dezake arrazoirik pozik egoteko Nafarroan, PSN eraikitzen ari den eskeman —ez dugu haiekin hitz egingo, baina botoak onartu bai— jarraitzen du aldaketaren giltza izaten eta. Nork esango zion halakorik Batasunari duela urte batzuk. Madrilen eta boteretsuen begietara, gainera, jarraitzen du izaten arriskutsua eta, beraz, Espainian manipulagarria. Batetik, PPri ondo datorkio beti mamu bat izatea, baina bestetik ez zaio samurra bere publikoari azaltzea ETA guztiz gainditua dagoela eta porrot egin duela (haien “dena da ETA” ikuspegitik begiratuta, jakina) eta gero, adibidez, Bildu gobernu bat kanporatzeko giltza gisa aurkeztea. Azkenean, Nafarroako hauteskundeak aurreratuko balira, bere aurkako mezuarekin Bildu mesedetu besterik ez luke egingo PPk.

Bildu, gainera, dagoneko ez da Bildu bakarrik eta datozen hauteskundeetan EH Bildu izango da Nafarroan ere. Hau da, gaur egun, Nafarroako Legebiltzarrean Bilduk eta Aralar-Nabaik 13 parlamentari dituzte —PSNk 9— eta hori izango da, hain zuzen, datu ikusgarrienetako bat hurrengo hauteskundeetan ea EH Bilduk Nafarroako bigarren indar politikoa izatea lortzen duen. Samurra ez du izango, besteak beste Geroa Bairen indarra bere egungo bi parlamentarien kopuruak adierazten duena baino askoz handiagoa izango delako. Denak adierazten du lehia handia izango dela EH Bilduren, Geroa Bairen eta PSNren artean, azken honek bere kartak ondo jokatzan baditu behintzat, nahiz eta oraingoz ezin esan horretan asmatzen ari denik.

Nafarroan aldaketa nahi duenak ezin du Madrilen eta Nafarroan aldi berean berdin egon, hori UPNk eta PPk egin dezakete, baina ez PSNk. Eta horretan ari dira Jimenezen alderdikoak legealdiaren hasieratik.

Bere interesei begira Madrilek erdigunean Bildu jartzen badu ere, PSN da egiazki aldaketaren erdigunean dagoena. Geroa Bai, Aralar-Nabai, Bildu eta Ezkerra aspaldi daude ados UPNren gobernuari amaiera ematearekin, baina PSNren botoak ezinbestekoak dira, eta hauek ostegunera arte ez dute erabakiko zentsura mozioarekin bat egiten duten ala ez. Eta ez da erraza ulertzea PSNren jokaldia. Otsailaren 12an esan zuten Idoia Nievesek esandakoak

PSN eta PSOE bultzatzen ari direna —Bildurekin ez hitz egitea—, gezurra izateaz gain, ez da batere pedagogikoa gizarteari begira

egia zirela frogatuz gero, Barcinaren dimisioa eskatuko zutela eta honek dimititu ezean, zentsura mozioa izango zela. Bada, oraingoz huts egin dute berriz. Nafarroako Legebiltzarreko ikerketa batzordeak frogatutzat eman du hori, baina PSNk atzera egin du eta orain Yolanda Barcina arbuia du, zentsura mozioaren erabakia bere lurralde batzordearen esku utziz.

Baliteke guztia zentsura mozioa hobeto borobiltzeko jokaldia izatea, horrela Ferrazek atzera bota nahi izatekotan ez luke egin beharko bakarrik zuzendaritzaren aurka, PSN osoaren aurka baizik. Eta teoriarik, PSOEek PPren erasoari aurre egiteko argudio bat ere

eraiki du —“ez dugu Bildurekin hitz egingo”—, nahiz eta denok jakin hori bost axola zaiela PPri eta brunete mediatikoari eta ez dagoela eraso hori saihesterik. Badirudi batzuetan antzerkia egitea ezinbestekoa dela, arazoa da, PSNrekin nekez asma daitekeela noiz den antzerkia eta noiz ez. Hilaren 6an bere lurralde batzordea bildu arte, beraz, ate guztiak irekita dira, baita zentsura mozioa ez aurkeztearena ere, nahiz eta honek PSN oso egoera larrian jar dezakeen.


Antzerkiarena askotan gertatzen da alderdien esparruan eta ez da praktika ona, besteak beste herritarrak nahasten direlako, baina antza denez saihestezina da egungo politika ereduari. Egia esan, PSN eta PSOE bultzatzen ari direna —Bildurekin ez hitz egitea— errealitatean gezurra izateaz gain, ez da batera pedagogikoa gizarteari begira, herritarrei elkarrizketaren balioa saldu beharrean,

bazterketarena saltzen baitzaie. Bildurekin ere hitz egitea litzateke logikoena eta, ondoren, nahi den erabakia hartzea. Zorionez, alabaina, saltzen den jarrera ez da egiazkoa, PSNk eta PSEk Bildurekin normaltasunez hitz egiten dutelako ia instituzio guztietan eta askotan adostasunetara ere iristen direlako, Bildurekin urteko aurrekontuak adostearaino (2013koak Gipuzkoako Diputazioan eta Donostiako Udalean). ETA jardunean ari zenean ere ez zen eraikitzailea —ezta egia ere— elkarrizketa ezaren mezua, baina bere jardun armatua utzi eta bere armak desegiten ari denean are gutxiago. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Argiako harpidedunentzat



OHIARTE Sagardotegia

2 lagunentzako
otordua

Irukarate-Gain auzoa
Zerain GIPUZKOA

www.oiharte.com

1



HAMLET Biarritze

2 lagunentzako bina sarrera
Martxoak 22 · 20:30
Colisee Antzokia

Artedrama Kultur Leioa
Juan Ramon Aketxe plaza, 11
Leioa BIZKAIA

www.artedrama.com

2



EUREKA! zientzia museoa

2 lagunentzako
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

3



neighbor ura patrikan

5 CD opari

Gaztelupeko Hotsak
Soraluze, GIPUZKOA

www.hotsak.com

4



Bixente **ARGIA** rentzako

Bixente Ameztoy ARGIA azalak

1978. urtean Bixente Ameztoyk
Zeruko Argia aldizkarian egindako
36 azal laminatan inprimatuak

2 lamina sorta

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2404. Argia)

HAMLET - ZUMARRAGA

- Adunako Udal Liburutegia (Aduna)
- Antton Idiakez Kortá (Ezkio-Itsaso)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Jesus Miguel Zabalo Bilbao (Galdakao)
- Iñaki Urutxurtu Fernandez (Antsoain)
- Alberto Etxeberria Arrese (Onati)
- Mari Jose Irizar Aranburu (Donostia)

EUREKA! Zientzia Museoa

- Gotzon Bedialauneta Arrizabalaga (Iruñea)
- Auro Ansorregi Alzibar (Mutriku)

ANEIKA ARA CDa

- Andoni Alba Salaberria (Iruñea)
- Amasorrain Ikastola (Donostia)
- M. Pilar Zeberio Begiristain (Andoain)
- Aitor Sangroniz Akarregi (Santurtzi)
- Miren Olabarria Arana (Bergara)

ILLIMANI

- Jose Antonio Zubeldia Gaztañaga (Donostia)
- Portugaleteko Aek Euskalgia (Portugalete)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO


Astelehenetik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.com

www.argia.com/guinea

guinea

argia





Berdintasunarekin aurrera goaz. Eman pausoa.

Martxoak 8,
Emakumeen Nazioarteko Eguna.

